

ITZULPENA¹

Araua: 562/2006 (EE) ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko martxoaren 15ekoa, pertsonak mugak igarotzeko komunitate-arauen kodea ezartzen duena (Schengen muga-kodea).

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da:
«REGLAMENTO (CE) No 562/2006 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 15 de marzo de 2006, por el que se establece un Código comunitario de normas para el cruce de personas por las fronteras (Código de fronteras Schengen)» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 105 de 13/4/2006)

(Egintza hauek argitaratu egin behar dira, aplikagarriak izan daitezen)

562/2006 (EE) ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2006ko martxoaren 15koa,
pertsonen mugak igarotzeko komunitate-arauen kodea ezartzen duena
(Schengen muga-kodea)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK

Europako Erkidegoa eratzekeo Ituna, eta, bereziki, haren 62. artikulua 1. paragrafoa eta 2. paragrafoa a) idatz-zatia aztertu dute

baita Batzordearen proposamena ere,

Itunaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari¹ jarraiki,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Europaren barneko mugetan pertsonak igarotzeari kontrolik ez zaiola jarriko bermatzeko neurriak Ituneko 62. artikuluko 1. paragrafoaren arabera hartuko dira; izan ere, Batasunaren helburuak osatzen dituzten elementuetako bat da hori, eta Itunaren 14. artikuluan adierazita dagoen bezala, pertsonen joan-etorri askea bermatzeko mugarik gabeko barruko eremua eratuko da.

(2) Itunaren 61. artikulua arabera, pertsonen joan-etorri askeko eremua sortzea neurri osagarriak hartzearekin lotu behar da. Kanpoko mugak igarotzeko politika komuna, Itunaren 62. artikulua 2. paragrafoan adierazten den bezala, neurri horien zati da.

(3) Barruko mugetan pertsonak igarotzeari buruzko neurriak zein kanpoko mugen kontrolari buruzkoak Schengengo ondarearen xedapenak —Europar Batasunaren esparruan sartuak— izan behar ditu kontuan, eta, bereziki, Schengengo akordioa, 1985eko ekainaren 14koa, aplikatzeko hitzarmenari dagozkion xedapenak. Akordio hori Benelux Batasun Ekonomikoko Estatuetakoko Gobernuak, Alemaniako Errepublikak eta Frantziako Errepublikak sinatu zuten, eta muga komunetako kontrolak pixkanaka kentzeari² buruzkoa eta eskuliburu komunari³ buruzkoa zen.

(4) Kanpoko mugetako kontrolei dagokionez legegintzako “corpus komuna” ezartzea da, batez ere gai horren inguruan dagoen ondarea egonkortuz eta garatuz, kanpoko mugak kudeatzeko politika

¹ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2005eko abenduaren 13koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko apirilaren 28koa.

² EO L 239 2000.9.22koa, 19. or. Europako Parlamentuko eta Kontseiluko (CE) 1160/2005 araudiak aldatutako hitzarmena (EO L 191 2005.7.22koa, 18. or.).

³ EO C 313 2002.12.16koa, 97. or. (CE) 2133/2004 Araudiak aldatutako eskuliburu komuna (EO L 369 2004.12.16koa, 5. or.).

bateratuaren ardatzetako bat. Eta horrelaxe definitzen du Batzordearen 2002ko maiatzaren 7ko komunikazioak, “Europar Batasuneko Estatu kideen kanpoko mugen kudeaketa integraturantz” izenekoak. Helburu hori “Europar Batasuneko Estatu kideen kanpoko mugen kudeaketarako plana”ren barruan sartuta dago. Plan hori, berriz, 2002ko ekainaren 13an onartu zuen Kontseiluak eta urte bereko ekainaren 21ean eta 22an Sevillako Kontseilu Europarraren oniritzia jaso zuen, baita 2003ko ekainaren 19ko eta 20ko Salonikako Kontseilu Europarrarena ere

(5) Pertsonak mugak igarotzeko araudi komunaren definizioak ez dio Batasuneko herritarrek eta horien senideek duten joan-etorri askeko eskubideari eragiten eta ez du hori zalantzan jartzen. Ezta hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten herritarrenari eta horien senideenari ere, erkidegoaren eta estatu kideen eta aipatutako hirugarren herrialdeen artean egindako akordioei esker eskubide berberak badituzte joan-etorri askeko.

(6) Kanpoko mugen kontrola ez da bakarrik egiten muga horiek dituzten estatu kideen interesengatik, barruko mugen kontrola ezabatu duten estatu kide guztien interesengatik ere egiten da. Mugako kontrolek ezkutuko immigrazioaren eta gizakien salerosketaren aurka egiten lagundu behar du, baita barneko segurtasuna, ordena publikoa, osasun publikoa eta estatu kideen nazioarteko harremanak arriskuan jartzen dituen edozein mehatxuren aurka egiten ere.

(7) Mugako kontrolak egitean gizakiaren duintasuna guztiz errespetatu behar da. Modu profesionalean eta errespetuz egin behar dira eta lortu nahi diren helburuekiko proportzionatuak izan behar dute.

(8) Mugako kontrolak, pertsonen kontrola egin eta leku horiek zaintzeaz gain, barruko segurtasunerako zer arrisku dauden aztertu behar du eta kanpoko mugei eragin diezaiekeen mehatxuen analisia egin behar du. Beraz, komeni da, mugetako kontrola eta zaintzak arautuko dituzten baldintzak, irizpideak eta arauak ezartzea.

(9) Mugetan jendeak gehiegi itxaron ez dezan, egoera bereziak eta ezustekoak daudenean kanpo-mugetako miaketak malgutzeko aukera aurreikusi behar da. Mugako miaketak malgutzen direnean ere, ezinbestekoa da hirugarren herrialdeetako nazionalen agiriari sistematikoki zigilua jartzea. Zigilua botatzeak aukera ematen du muga zer egunetan eta non zeharkatu zuen ziur jakiteko, baina ez du esan nahi, ezinbestean, bidaia-agiriak kontrolatzeko neurri guztiak aplikatu direnik.

(10) Zirkulazio askeko eskubidea dutenen itxarotedenbora murrizteko helburuarekin, egoerak aukera ematen duenean, mugetan aparteko ilarak izatea

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

komeni da. Ilara horietan adierazle berberak erabiliko dira estatu kide guztietan. Nazioarteko aireportuetan aparteko ilarak eduki behar dira. Beharrezko ikusten denean eta egoerak aukera ematen badu, estatu kideek itsasoko zein lurreko mugetan aparteko ilarak jartzea aztertu beharko dute.

(11) Estatu kideen ardura da kanpoko mugen kontrol-prozedurak oztopo ez izatea komertziorako eta gizarte- zein kultura-trukerako. Horretarako, behar den pertsona-kopurua zein baliabideak erabili beharko dituzte.

(12) Estatu kideak izendatu behar du kontrol-eginkizunaren arduradun izango den zerbitzu nazionala (edo zerbitzu nazionalak), estatuko bertako zuzenbideari jarraituz. Estatu kide batean, arduradunak zerbitzu bat baino gehiago badira, horien arteko elkarlan estua eta etengabea ziurtatu behar da.

(13) Estatu kideen kanpoko mugetako lankidetzaren operatiboa kudeatzeko Europako Agentziak, 2007/2004 EE araudiak¹ arautzen duenak, kudeatu behar du mugen kontrolaren alorreko lankidetzaren operatiboa eta estatu kideen arteko laguntza.

(14) Araudi honek ez die honako hauei eragiten: poliziaren eskumen orokorren barruan egindako miaketek; hegaldi nazionaltan pertsonen egiten zaizkien segurtasun-miaketaren berdinak diren miaketek; estatu kideek ekipajeetan ez-ohiko miaketak egiteko aukerari, Kontseiluaren 1991ko abenduaren 19ko 3925/91 Erregelamenduaren² arabera (Erregelamendu horren arabera kontrolak eta horren inguruko formalitateak kentzen zaizkie komunitate barruko hegaldiak egiten dituzten pertsonen eskuko ekipajeari eta fakturatutako ekipajeari, bai eta komunitate barruko itsas-bidaia egiten duten pertsonen ekipajeari ere); eta estatuko barne-zuzenbideari, soinean bidaia-agiriak edo nortasun-agiriak eramateko betebeharrari dagokionez eta estatu kideetako agintariei lurraldean dagoela adierazteko betebeharrari dagokionez.

(15) Ordena publikorako edo barruko segurtasunerako mehatxu larria badago, estatu kideek beren barruko mugetan aldi batez kontrolak berrezartzeko aukera izan behar dute. Horri buruzko baldintzak eta prozedurak ezartzea komeni da, neurria ez ohikoa dela bermatzeko eta proportzionaltasun-

printzipioa errespetatzeko. Barruko mugen aldi baterako kontrolen ezarpenaren hedadura eta iraupena mugatu egin behar dira, mehatxuari erantzuteko beharrezkoa den neurria mugatu ere.

(16) Barruko mugetan kontrolak berrezartzeak ez-ohikoa izaten jarraitu behar du pertsonen zirkulazio askeko gune batan. Mugak igarotze hutserako ez da mugako kontrolik egin behar, ezta formalitasunik ezarri behar ere.

(17) Beharrezkoa da Kontseiluari muga-kontrolako arau praktikoak egokitzeko aukera emango dion prozedura aurreikustea. Kasu hauetan, egokia da Erregelamendu hau betearazteko beharrezko neurriak hartzea Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiari jarraituz. Erabaki horrek Batzordeari egotzitako betearazteko eskumenak betetzeko prozedurak ezartzen ditu³.

(18) Beste prozedura bat aurreikustea ere beharrezkoa da, estatu kideek Batzordeari jakinarazi ahal diezaioten muga-kontrolerako beste arau praktiko batzuk aldatu dituztela.

(19) Erregelamendu honen helburua, pertsonen mugak igarotzeko aplikatu daitezkeen arauak ezartzea, estatu kideek beren kasa behar bezala gauzatu ezin dutenez, eta, ondorioz, erkidegoaren esparruan emaitza hobeak lor daitezkeenez, Erkidegoak neurriak ezar ditzake, Itunaren 5. artikuluan adierazitako subsidiarotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Erregelamendu hau ez doa beharrezkoaz haraindi helburu horiek lortzeko.

(20) Erregelamendu honek oinarrizko eskubideak errespetatzen ditu, eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen gutunean aitortutako printzipioak betetzen ditu. Nazioarteko babesaren eta ez itzularaztearen esparruan estatu kideek dituzten betebeharrak errespetatuz aplikatu behar da.

(21) Dena dela, Itunaren 299. artikuluan jasotakoa, Frantziako eta Herbeheretako lurraldeetatik, Europan kokatuta daudenetan bakarrik aplikatzen da araudi hau. Ceuta eta Melillako araudi bereziari ez dio eragiten, hala adierazten da 1985eko ekainaren 14an Schengen Araudia aplikatzeko hitzarmenean Espainiako Erreinuak hartutako atxikimendu akordioan⁴.

(22) Europar Batasuneko Itunean eta Europako Erkidegoa eratzekeo Itunean eranskin moduan Danimarkaren jarrerari buruz erantsitako

«¹ Kontseiluaren 2004ko 2007/2004 EE Erregelamendua, Europar Batasuneko estatu kideen kanpoko mugen lankidetzaren operatiboa kudeatzeko Europako Agentzia (EO L 349, 2004.11.25eko, 1. or.)

«² EO L 374, 1991.12.31koa, 4. or. Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 EE Erregelamendua (EO L 284, 2003.10.31koa, 1. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

«³ EO L 184, 1999.7.17koa., 23. or.

«⁴ EO L 239, 2000.9.22koa., 69. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Protokoloaren 1. eta 2. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, Danimarkak ez du Erregelamendu honetan parte hartzen, ez dago hari lotuta eta ez du ezarri beharrik. Kontuan hartuta Erregelamendu honek Schengengo ondarea garatzen duela Europako Erkidegoa eratzeko Itunaren hirugarren ataleko IV titularen arabera, Danimarkak, Protokoloaren 5 artikuluari jarraiki, sei hilabeteko epean erabaki behar du Erregelamendu hau estatuko bertako zuzenbidean sartuko duen ala ez.

(23) Islandia eta Norvegiari dagokienez, Erregelamendu honek Schengengo ondarearen xedapenak garatzen ditu, Islandiako errepublikarekin eta Norvegiako erresumarekin Europar Batasuneko Kontseiluak egindako akordioan ezarritakoaren arabera. Akordio hori bi estatu horiek Schengengo ondarea¹ gauzatu, aplikatu eta garatzeko elkartzeari buruzkoa da. Xedapen horiek Kontseiluaren 1999/437/EE Erabakiko² 1. artikulua A idatz-zatian daude. Erabakia akordioaren zenbait arauen garapenari buruzkoa da.

(24) Xedapenak ezarri behar dira Islandia eta Norvegiako ordezkariak Batzordeari egikaritze-eskumenetan laguntzen dioten batzordeetako lanarekin bat egin dezaten. Xedapen horiek Europar Batasuneko Kontseiluaren eta Islandiako errepublikaren eta Norvegiako Erresumaren arteko Agiri Trukean³ jasota gelditu dira. Agiri Truke hori Europako Batzordeari egikaritze-eskumenetan laguntzen dioten batzordei buruzkoa da eta Akordioari erantsita dago.

(25) Suitzari dagokionez, Erregelamendu honek Schengengo ondarearen xedapenak garatzen ditu, Europar Batasunak, Europako Erkidegoak eta Suitzako Konfederazioak sinatutako Akordioaren arabera (Akordio hori Suitzako Konfederazioak Schengengo ondarea gauzatu, aplikatu eta garatzeko elkartzeari buruzkoa da). Xedapenok Kontseiluaren 199/437/EE erabakiko 1. artikulua A idatz-zatian deskribatutako eremuan daude, Kontseiluaren 2004/849/EE⁴ eta 2004/860/EE⁵ Erabakietako 4.

«¹ EO L 176, 1999.7.10ekoa., 36. or

² EO L 176, 1999.7.10ekoa., 31. or

«³ EO L 176, 1999.7.10ekoa., 53. or

«⁴ Kontseiluaren 2004/849/EE Erabakia, 2004ko urriaren

25ekoa (EO L 368, 2004.12.15ekoa, 26 or.). Erabakiak, Europar Batasunaren izenean, sinatu egiten du, Europar Batasunak, Europako Erkidegoak eta Suitzako Konfederazioak sinatutako Akordioa, eta horren zenbait xedapen behin-behingo ezartzen ditu. Akordio hori

562/2006 Zuzentaraua (EBren Aldizkari Ofiziala, L 105 2006/04/13koa)

artikuluko 1. paragrafoarekin batera irakurrita.(26) Xedapenak ezarri behar dira Suitzako ordezkariak Batzordeari egikaritze-eskumenetan laguntzen dioten batzordeetako lanarekin bat egin dezaten. Aipatutako xedapenak Erkidegoaren eta Suitzaren arteko Agiri Trukean jasota gelditu dira (horiek lehen aipatutako Akordioaren eranskin gisa jasota daude).

(27) Kontseiluaren 2000ko maiatzaren 29ko 2000/365/EE Erabakiaren⁶ arabera, Erresuma Batuak ez du parte hartzen Erregelamendu honek garatzen dituen Schengengo ondarearen zenbait xedapenen garapenean. Erabakia Britainia Handiko Erresuma Batuaren eta Ipar Irlandaren eskaerari buruzkoa da, Schengengo Ondareko zenbait xedapenetan parte hartzeko. Ondorioz, Erresuma Batuak ez du Erregelamendu honetan parte hartzen, ez dago hari lotuta eta ez du ezarri beharrik.

(27) Kontseiluaren 2000ko otsailaren 28ko 2000/365/EE Erabakiaren⁷ arabera Irlandak ez du parte hartzen Erregelamendu honek garatzen dituen Schengengo ondarearen zenbait xedapenen garapenean. Erabaki hori Irlandak Schengengo ondareko zenbait xedapenetan parte hartzeko egindako eskaerari buruzkoa da. Ondorioz, Irlandak ez du Erregelamendu honetan parte hartzen, ez dago horri lotuta eta ez du ezarri beharrik.

(29) Erregelamendu honetan, 1. artikuluko lehen esaldia, 5. artikuluko 4. paragrafoa a) idatz-zatia, III. titulua eta Schengen Informazio Sistemari (SIS) dagozkion II. tituluko eta eranskinetako xedapenak Schengengo ondarea garatzen duten xedapenak dira, edo horrekin bestelako lotura bat dute, 2003ko Atxikipen Aktaren 3. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako zentzuan.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU

DUTE:

I TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

Suitzako Konfederazioak Schengengo ondarea gauzatu, aplikatu eta garatzeko elkartzeari buruzkoa da.

⁵ Kontseiluaren 2004/860/EE Erabakia, 2004ko urriaren 25ekoa (EO L 370, 2004.12.17koa, 78 or.). Erabakiak, Europar Batasunaren izenean, sinatu egiten du, Europar Batasunak, Europako Erkidegoak eta Suitzako Konfederazioak sinatutako Akordioa, eta horren zenbait xedapen behin-behingo ezartzen ditu. Akordio hori Suitzako Konfederazioak Schengengo ondarea gauzatu, aplikatu eta garatzeko elkartzeari buruzkoa da.

«⁶ EO L 131, 2000.1.6koa, 43. or

«⁷ EO L 64, 2002.3.7koa, 20. or

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. artikulua

Helburuak eta printzipioak

Erregelamendu honek ezartzen du ez dela mugako kontrolik izango Europar Batasuneko estatu kideen barruko mugak zeharkatzen dituzten pertsonentzat.

Europar Batasuneko estatu kideen kanpoko mugak zeharkatzen dituzten pertsonen muga-kontrollean aplikatu beharreko arauak ezartzen ditu.

2. artikulua

Definizioak

Erregelamendu honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira kontuan

1) «barruko mugak»:

a) Estatu kideen lurreko muga komunak, ibai- eta aintzira-mugak barne;

b) Estatu kideetako aireportuak, barruko hegaldietan;

c) Estatu kideen itsas portuak, eta ibai- eta aintzira-portuak, transbordadoreen lotura erregularretan;

1) «kanpoko mugak»: Estatu kideen lurreko mugak, ibai-, aintzira- eta itsas mugak barne, bai eta aireportuak eta itsas, ibai- eta aintzira-portuak, barruko mugak ez badira, betiere.

3) «barruko hegaldia»: Estatu kideetatik datozen edo bertara doazen hegaldiak, hirugarren herrialde batean geldialdirik egiten ez dutenak;

4) «transbordadoreen lotura erregularrak»: Estatu kideak diren lurraldeetako bi portutatik edo gehiagotatik datozen transbordadoreen loturak, estatu kideak ez diren lurraldeetako portuetan geldialdirik egiten ez dutenak, eta pertsonak edo ibilgailuak ordutegi publiko bati jarraituz garraiatzen dituztenak;

5) «zirkulazio askerako komunitateko eskubidearen onuradunak»:

a) Batasuneko hiritarrak, itunaren 17. artikuluko 1. atalean zehaztutakoaren arabera, baita hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten herritarrak ere, batasuneko herritar baten senide badira, zirkulazio askerako eskubidea erabiltzen badute eta 2004ko apirilaren 29ko Europar Parlamentuko eta Kontseiluko 2004/38/CE Zuzentaraua aplikatzen bazaie.

(zuzentarau hori Batasuneko hiritarrek eta horien familiako kideek estatu kideetako lurraldeetan askatasunez zirkulatzeko eta bizitzeko duten eskubideari buruzkoa da¹);

b) hirugarren herrialdeetako nazionalak eta haien familiako kideak, edozein nazionalitate izanda ere, baldin eta komunitatearen eta estatu kideen eta aipatutako hirugarren herrialdeen artean egindako akordioei esker zirkulazio askeari

dagokionez Batasuneko hiritarren eskubide berberak badituzte.

6) «hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen hiritarra»: Batasuneko nazionalitatea duten hiritarra ez den pertsona oro, Itunaren 17. artikuluko, 1 atalean eta artikuluko honetako 5 puntuko baldintzak betetzen ez dituenak;

7) «ez onargarri moduan inskribatutako pertsona»: Schengen Informazio Sistemari (SIS) inskribatutako hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrak, Schengengo Hitzarmeneko 96. artikuluan ezarritakoaren arabera;

8) «muga-igarobidea»: eskumena duten agintariek kanpoko mugak igarotzeko egokitutako igarobide guztiak;

9) «mugako kontrola»: mugetan egiten diren jarduerak, Erregelamendu honetako xedapenei jarraituz eta horren ondorioetarako, baldin eta helburua —beste edozein arrazoirenekin egon daitezkeen arren— muga zeharkatzea bada edo mugak zeharkatzea bera ekintza bada eta mugako ikuskapenak eta muga kontrolatzeko jarduerak badira;

10) «mugako ikuskapena»: estatu kideetan pertsonen sarrera —eta horien garraibideena eta dauzkaten gauzena— baimentzeko helburuz muga-igarobideetan egindako ikuskapenak, edo estatu kideak uzteko egindakoak;

11) «mugen zaintza»: Muga-igarobideen arteko mugaren zaintza, eta muga-igarobideen zaintza, horien irekiera- ordutegitik kanpo, pertsonak mugetako ikuskapenak saihestu ez ditzaten egindakoak.

12) «bigarren lerroko ikuskapenak»: pertsona guztiak begiratzeko diren tokitik (lehen lerroa) kanpo, leku berezi batean egin daitezkeen beste ikuskapen bat;

13) «mugen zaindaria»: Barne-zuzenbidearen arabera, muga-igarobide batean edo mugan zehar edo hortik gertu araudi honi edo barne-zuzenbideari jarraituz mugen kontrollean lan egiten duen funtzionario publikoa. 14) «garraiolaria»: «garraiolaria»: jarduera profesionaltzat pertsonen garraioa duten pertsona fisiko zein juridikoak;

15) «bizileku-baimena»:

a) estatu kideek 2002ko ekainaren 13ko kontseiluaren 1030/2002/EE Erregelamenduaren² arabera emandako egoitza-baimen guztiak (arau horren bidez egoitza-baimen eredu bateratua ezartzen da hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrentzat).

b) estatu batek hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen hiritar bati emandako dokumentu guztiak, bere herrialdean egonaldia baimentzen dutenak edo bertara itzultzea baimentzen dutenak, hauek izan ezik: a) idatz-zatiak adierazten duen egoitza-baimenaren lehen eskaera edo asilo-eskaera egin eta azterketa

¹ EO L 158 2004.4.30ekoa, 77. or.

² EO L 157, 2002.6.15ekoa, 1. or

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

egiteko zain egoteagatik emandako aldi baterako baimenak;

16) «gurutzaldietarako itsasontzia»: aurrez zehaztutako programa baten arabera ibilbidea egiten duen itsasontzia, zenbait portutan jarduera turistikoetarako programa duena, baina, hasiera batean, ibilbidean zehar bidaiaririk utzi edo hartzen ez duena;

17) «aisiako nabigazioa»: kirol- zein turismo-jardueratarako aisialdiko itsasontziak erabiltzea;

18) «baxurako arrantza»: Egutero edo 36 orduren buruan estatu kide bateko portura itzultzen diren eta hirugarren herrialde batean geldialdirik egiten ez duten itsasontziekin egindako arrantza-lanak;

19) «osasun publikorako mehatxua»: Munduko Osasun Erakundearen Nazioarteko Osasun Araudiaren arabera epidemikoa izan daitekeen edozein gaixotasun eta beste gaixotasun infekzioso batzuk edo kutsagarriak izan eta parasitoek sortutako gaixotasunak, estatu kideetako nazionalitatea duten hiritarrei aplikatu dakiekeen babes-xedapenik badute.

3. artikulua

Aplikazio-eremua

Erregelamendu hau estatu kideen barruko zein kanpoko mugak zeharkatzen dituzten pertsona guztiei aplikatuko zaie, baina ez die hauei eragingo:

- a) zirkulazio aserako komunitateko eskubidearen onuradunen eskubideei;
- b) errefuxiatuen eskubideei eta nazioarteko babesa eskatzen dutenei, batez ere ez itzultzeari dagokionez.

II. TITULUA

KANPOKO MUGAK:

1. KAPITULUA

Kanpoko mugak zeharkatzea eta sartzeko baldintzak

4. artikulua

Kanpoko mugak zeharkatzea

1. Kanpoko mugak muga-igarobideetatik eta ezarritako ordutegian bakarrik zeharkatu ahal izango dira. Irekiera-ordutegia argi eta garbi azalduko da muga-igarobide bakoitzean, baldin eta 24 orduz irekita ez badago.

Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote beren igarobideen zerrenda, 34. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2. 1. paragrafoan zehaztutakoa dena dela ere, 562/2006 Zuzentaraua (EBren Aldizkari Ofiziala, L 105 2006/04/13koa)

kanpoko mugak muga-igarobideetatik eta ezarritako irekiera-ordutegian bakarrik zeharkatzeko salbuespenak egin daitezke, hauei:

a) aisiako nabigazioari eta baxurako arrantzari dagokionez;

b) baimena duten bitartean, geldialdia egiten duen portuan edo inguruko herrietan dabilzan itsasgizonei;

c) pertsona edo taldeei, behar berezirik izanez gero, baldin eta barne-zuzenbideak eskatutako baimenik badute eta estatu kideen barruan ordena publikorako edo segurtasunerako inolako interes-gatazkarik ez badago;

d) pertsona edo taldeei, ezusteko larrialdi-egoeraren bat gertatzen bada.

3. 2. paragrafoan aurreikusitako salbuespenak edo nazioarteko babesean dituen betebeharrak alde batera utziz, estatu kideek zigorrak ezarriko dituzte, barne-zuzenbidearen arabera, kanpoko mugak muga-igarobideak ez diren beste leku batzuetatik igarotzen badira edota ezarritako irekiera-ordutegitik kanpo. Zigor horiek eraginkorrak, tamainakoak eta disuasiokoak izan beharko dute.

5. artikulua

Hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrak sartzeko baldintzak

1. Sei hilabeteko epean hiru hilabetetik gorakoa ez den egonaldirako, hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duten hiritarrentzako sarrera-baldintzak honako hauek izango dira:

a) muga zeharkatzeko aukera ematen duten bidaia-agiri balioiduna edukitzea;

b) bisatu balioiduna edukitzea, 2001eko martxoaren 15eko Kontseiluaren 539/2001 Erregelamenduak hala eskatzen duenean (Erregelamendu horretan hirugarren herrialdeen bi zerrenda egiten dira: batean, herrialdeko nazionalitatea duten hiritarrek kanpoko mugak igarotzeko bisatua behar duten hirugarren herrialdeen zerrenda, eta, bestean, betebeharrak horretatik salbuetsita dauden herrialdeena¹), egoitza-baimen balioiduna ez badu;

c) aurreikusitako egonaldiaren helburua eta baldintzak justifikatzen dituen dokumentua edukitzea eta bizirauteko nahikoa bitarteko edukitzea, bai aurreikusitako egonaldiaren operako, bai jatorrizko herrialdera itzultzeko edo

¹ DO L 81 21.3.2001ekoa, 1. or. azken buruan 851/2005 EE Erregelamenduak aldatua (DO L 141 4.6.2005ekoa, 1. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

onarpena bermatuta duen hirugarren herrialde batera joateko, edo bitarteko horiek legez lortzeko aukerak edukitzea;

- d) SISEan ez onargarri moduan inskribatuta ez egotea;
- e) mehatxu ez izatea ordena publikorako, barruko segurtasunerako, osasun publikorako edo estatu kideetakoren baten nazioarteko harremanetarako, eta, bereziki, ez egotea inskribatuta arrazoi horiengatik estatu kideen nazioko datu-basean ez onargarri moduan.

2. I. eranskinean mugetako zaindarien hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrei eska dakizkiekeen dokumentu justifikatzaileen zerrenda — ez osoa— ageri da. Dokumentu horiek 1 ataleko c) idatz-zatian zehazten diren baldintzak betetzen diren egiaztatzeko eskatuko dituzte.

3. Bizirauteko bitartekoen kalkulua egonaldiaren iraupenaren eta arrazoiaren arabera izango da, eta dagokion estatu kideetako ostatu merkeko ostatuaren eta elikaduraren batez besteko prezioa erabiliko da horretarako, bider egonaldiak iraungo dituen egunak eginda.

Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko dizkiote ezarritako erreferentziazko zenbatekoak, 34. artikulua arabera.

Bizirauteko nahikoa bitarteko dituela frogatzeko oinarria hirugarren herrialdeko nazionalitatea duten hiritarrak dauzkan dirua, bidaia-txekeak eta kreditu-txartelak izan daitezke. Gonbidapen-deklarazioak — barne-zuzenbideak aurreikusten baditu— eta barne-zuzenbideak zehaztutako kargu-hartzeko deklarazioak —hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarra estatu kideko pertsona batek hartzen badu etxean— ere bizirauteko bitartekoen froga izan daitezke.

4. Dena dela 1. paragrafoan zehaztutakoa:

- a) 1. paragrafoan ezarritako baldintzak bete ez arren, hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrei estatu kideetan sartzeko baimena eman ahal izango zaie, baldin eta egoitza-baimena badute edo estatu kide batek izapidetutako itzultzeko bisatua, edo, hala eskatuz gero, bi dokumentuak, egoitza-baimena edo bisatua izapidetu duen estatu kidearen lurraldera iritsi ahal izan daitezen, kasu honetan izan ezik: dagoen kanpoko mugaren estatu kidearen zerrenda nazionalean ez onargarri gisa azaltzen bada eta deskripzioan sarrera edo zirkulazioa ukatzen dioten neurriak ezarri behar zaizkiola esaten bada;

- b) estatu kideetako lurraldeetara sartzeko baimena eman ahal izango zaio mugan azaltzen diren hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrei, baldin eta 1. paragrafoko baldintzak, b) idatz-zatikoak izan ezik, betetzen badituzte, eta bisatua eman badakieke mugan, 2003ko otsailaren 27ko Kontseiluaren 415/2003/EE Zuzentarauaren arabera (araua mugan bisatuak emateari buruzkoa da, iragaten ari diren itsasgizonena barne)¹.

Mugan emandako bisatuak zerrenda batean erregistratuko dira.

Dokumentuan bisatua jartzerik ez badago, etiketa bat jarriko zaio, salbuespen moduan, dokumentuari erantsiko zaion aparteko orri batean.

Horrela egiten bada, bisatua jartzeko inprimakiaren eredu bateratua erabiliko da, 2002ko otsailaren 18ko Kontseiluaren 333/2002/EE Zuzentaruaren² ezarritakoaren arabera (araua inprimakia izapidetzen duen estatu kideak onartzen ez duen bidaia-dokumentuaren jabeek estatu kideek emandako bisatua jartzeko eredu bateratuari buruzkoa da)

- c) Gizalegeak, interes nazionalak edo nazioarteko betebeharrak hala aginduta, estatu kide guztiek bere lurretan sartzeko baimena eman ahal izango diote 1. paragrafoko baldintzaren bat betetzen ez duen hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen hiritarrei. Halakoetan, hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen hiritar bat 1. paragrafoko d) idatz-zatiari jarraiki ez onargarri moduan inskribatuta badago, bere lurraldean sarrera baimentzen dion estatu kideak horren berri eman beharko die gainerako estatu kideei.

II. KAPITULUA

Kanpoko mugen kontrola eta sarrerak ukatzea

6. artikulua

Mugako ikuskapenak egitea

- 1. Bere betebeharrak burutzean, mugetako zaindarien giza duintasuna erabat errespetatuko dute.

Bere betebeharrak burutzeko hartutako edozein neurri proportzionatua izango da neurriekin lortu nahi diren helburuekiko.

- 2. Mugetako ikuskapenak egiterakoan, mugetako

¹ EO L 64, 2003.3.7koa, 1. or.

² EO L 53, 2002.2.23koa, 4. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

zaindariak ez ditu pertsonak diskriminatuko sexua, arraza edo etnia, erlijioa edo sinesmena, elbarritasuna, adina edo joera sexuala dela eta.

7. artikulua

Pertsonen mugako ikuskapenak

1. Kanpoko mugetako mugaz haraindiko zirkulazioak mugetako zaindarien ikuskapenak pasa beharko du. Ikuskapenak kapitulu honen arabera egin beharko dira.

Garraio-bideak eta muga zeharkatzen duten pertsonak dituzten objektuak ere ikuskatu ahal izango dira. Ikuskapenak egiterakoan, dagokion estatu kidearen zuzenbidea aplikatuko da.

2. Kanpoko mugak zeharkatzen dituzten pertsona guztiak gutxieneko ikuskapena pasa beharko dute: bidaia-agiriak aurkeztu beharko dituzten haien identitatea zehazteko. Gutxieneko ikuskapena hau izango da: modu sinplean eta azkar egiaztatzea legezko titularrari muga igarotzeko baimena ematen dion agiria baliaduna den —behar izanez gero, horretarako baliabide teknikoak erabiliko dira eta dagokion datu-basean lapurtutako, kendutako, galdutako edo baliogabetutako dokumentuei buruzko informazioa, eta hori buruzkoa bakarrik, kontsultatuko da—, eta agiri horretan faltsifikatze- edo aldaketa-zantzurik ba ote dagoen.

1. paragrafoak aipatzen duen gutxieneko ikuskapena izango da araua zirkulazio askerako komunitateko eskubidearen onuradunentzat.

Dena dela, eta izaera sistematikorik gabe, zirkulazio askerako eskubidearen onuradunen gutxieneko ikuskapenak egiterakoan, mugetako zaindariak herrialde horretako zein Europako datu-baseak kontsultatu ahal izango ditu pertsona batek mehatxurik ez dakarrela egiaztatzeko, ez barruko segurtasunerako, ez ordena publikorako, ez estatu kideen nazioarteko harremanetarako ezta osasun publikorako ere.

Kontsulta horren ondorioek ez dute estatu kide horretan sartzeko eskubidea kaltetuko, hala ezartzen baitu 2004/38/EE Zuzentarauak, zirkulazio askerako komunitateko eskubidearen onuradunei buruzkoak.

3. Sarreran eta irteeran, hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrek ikuskapen zehatza pasa beharko dute:

a) Sarrerako ikuskapen zehatza egiterakoan 5. artikuluko 1. paragrafoan adierazten diren sarrera-baldintzak betetzen direla egiaztatuko da, baita egonaldia eta jarduera profesionala baimentzen duten dokumentuak ere. Alderdi hauek zehatz-zehatz aztertuko dira:

i) Hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen hiritarrak muga igarotzeko dokumentu baliaduna duela egiaztatuko da, eta ez dagoela iraungita edo, beharrezkoa bada, dagokion bisatua edo egoitza-baimena duela,

ii) bidaia-agiriaren faltsifikazio- edo aldaketa-zantzuak zorrotz kontrolatuko dira,

iii) Hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen hiritar baten bidaia-agirian dauden sarrera- eta irteera-zigiluak aztertuko dira, egiaztatu ahal izateko, sarrera- eta irteera-datak konparatuz, pertsona horrek estatu kideen lurraldean ez duela pasa baimendutako gehieneko egonaldia baina denbora gehiago,

iv) hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen hiritar baten abiapuntua eta helmuga egiaztatuko dira, baita aurreikusitako egonaldiaren helburua ere eta, beharrezkoa balitz, hori justifikatuko duten agiriak kontrolatuko dira,

v) hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen hiritarrak egonaldian bizirauteko nahikoa baliabide dituela egiaztatuko da, bai aurreikusitako egonaldiaren eperako eta helbururako, bai jatorrizko herrialdera itzultzeko edo onarpena bermatuta duen hirugarren herrialde batera joateko, edo bitarteko horiek legez lortzeko aukerak badituela egiaztatuko da,

vi) egiaztatuko da hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen hiritarrak, haren garraio-bideak eta garraiatzen dituen objektuek ez dituela arriskuan jarriko ordena publikoa, barruko segurtasuna, osasun publikoa edo estatu kidearen nazioarteko harremanak. Egiaztapen horretan zuzenean kontsultatuko dira pertsonen buruz, eta hala badagokio, gauzei buruz SISEan eta herrialdeko fitxategietan sartuta dauden datuak eta deskripzioak, eta deskripzio horrek eskatzen duen jarrera izango da;

b) irteeran egingo den ikuskapen zehatzean hau egingo da:

i) Hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen hiritarrak muga igarotzeko dokumentu baliaduna duela egiaztatuko da,

ii) bidaia-agiritan faltsifikazio- edo aldaketa-zantzurik ez duela egiaztatuko da,

vi) ahal bada, egiaztatuko da hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen hiritarra ez dela mehatxu ordena publikorako, barruko segurtasunerako, osasun publikorako edo estatu kideen baten nazioarteko harremanetarako;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

c) b) idatz-zatian adierazitako ikuskapenez gain, irteterakoan egiten den ikuskapen zehatzean hau ere egin ahal izango da:

i) Pertsona horrek bisatu balioduna duela egiaztatu, 539/2001/EE Zuzentarauak hala eskatzen duenean, balioduna den egoitzabaimena badu izan ezik,

ii) Pertsona horrek estatu kide baten lurraldean gehieneko egonaldiak baimentzen duena baino denbora gehiago ez duela igaro egiaztatu,

iii) pertsonen buruz eta gauzei buruz SISEan eta herrialdeko fitxategietan dauden deskripzioak kontsultatu.

4. Horretarako instalaziorik baldin badago eta hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen hiritarrak hala eskatzen badu, ikuskapen zehatzakune itxi batean egingo dira.

5. bigarren lerroko ikuskapen zehatza pasako duten hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrek ikuskapenaren helburuei eta prozedurei buruzko informazioa jasoko dute.

Informazio hori Batasuneko hizkuntza ofizial guztietan egongo da, eta estatu kidearekin muga egiten duen herrialdeko edo herrialdeetako hizkuntzan edo hizkuntzetan, eta adieraziko du hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarrak ikuskapena egingo duten mugetako zaindarien izena eta zerbitzua identifikatzeko zenbakia eskatu ahal izango duela, baita muga-igarobidearen izena eta muga noiz igaro den.

6. Zirkulazio askerako eskubidearen onuradunen ikuskapenak 2004/38/EE Zuzentarauaren arabera egingo dira.

7. II. eranskinean adierazita dago zer informazio praktikoa jaso behar den.

8. artikulua

Mugako ikuskapenak malgutzera

1. Mugetako ikuskapenak malgutu ahal izango dira egoera bereziak eta aurreikusi gabekoak gertatzen badira. Egoera bereziak eta aurreikusi gabekoak direla esango da, baldin eta aurreikusi ezin diren gertaerengatik, trafiko handia sortu eta muga-igarobideko itxaron denbora gehiegizkoa bada, eta, horrelakorik ez gertatzeko, giza baliabide, baliabide material eta antolaketa-baliabide guztiak agortu badira.

2. 1. paragrafoan adierazitakoa gertatuta, ikuskapenak 562/2006 Zuzentaraua (EBren Aldizkari Ofiziala, L 105 2006/04/13koa)

malgutzen direnean, sartzeko trafikoaren mugako ikuskapenak lehenetsia izango dute, printzipioz, irteerako trafikoaren mugako ikuskapenen aurrean.

Ikuskapenak malgutzeko erabakia muga-igarobideko mugetako zaintzaren arduradunak hartuko du.

Ikuskapenak aldi baterako malgutu dira, eragin duten egoerara egokituko da eta modu mailakatuan aplikatuko da.

3. Ikuskapenak malgutu arren, mugetako zaindariak hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarren bidaia-agiriei zigilua jarriko die, sarreran zein irteeran, 10 artikuluan adierazi bezala.

4. Estatu kide bakoitzak urtero helaraziko dio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari artikulua honen aplikazioari buruzko txostena.

9. artikulua

Errenkadak banatzea eta seinaleztatzea

1. Estatu kideek errenkada banatuak izango dituzte —batez ere, aireko mugen igarobideetan—, 7. artikulua arabera pertsonen ikuskapenak egin ahal izateko. Errenkada horiek III. eranskinean jasota dauden seinaleen bidez adierazita egingo dira.

Estatu kideek errenkada banatuak izan ditzakete itsas eta lurreko mugetan, baita 20. artikulua aplikatzen ez duten estatu kideekin dituzten muga komunetan ere. Estatu kideek muga horietan errenkada banatuak badituzte, III. eranskinean jasota dauden seinaleen bidez adierazita egingo dira.

Muga igarotzen duten pertsonen fluxu egokia lortzeko, estatu kideek errenkada horiek argi adierazita daudela zaindu beharko dute, baita errenkada horiek erabiltzeko arauak eten egiten direnean ere, 4. paragrafoan jasotakoaren arabera.

2. a) Zirkulazio askerako komunitateko eskubidearen onuradunek III. eranskineko A ataleko seinaleaz adierazitako errenkada erabili ahal izango dute. III. eranskineko B ataleko seinaleaz adierazitako errenkadak ere erabili ahal izango dituzte.

b) Gainerako pertsona guztiek III. eranskineko B ataleko seinaleaz adierazitako errenkadak erabili beharko dituzte.

a) eta b) idatz-zatietan adierazitako seinaleak estatu kide bakoitzak egoki irizten duen hizkuntzan edo hizkuntzetan adierazi ahal izango dira.

3. Itsasoko eta lurreko muga-igarobideetan, estatu kideek ibilgailuen trafikoaren errenkadatan banatu ahal izango dute (ibilgailu arinena, kamioiena edo autobusena), III. eranskineko C ataleko seinaleez

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

adierazita.

Estatu kideek seinaleetako adierazpenak aldatu ahal izango dituzte tokian tokiko egoerak hala gomendatzen badu.

4. Uneren batean, trafikoaren fluxuaren oreka galtzen bada muga-igarobide jakin batean, eskumena duten agintariek, denbora jakin batez, errenkadak erabiltzeko araua bertan behera utzi ahal izango dute, fluxua berriro orekatu artean.

5. Egun dauden seinaleek 1, 2 eta 3. paragrafoetako xedapenetara egokituta egon beharko dute, beranduenera, 2009ko maiatzaren 31rako. Estatu kideek egun dauden seinaleak ordezkatzen badituzte edo data horren aurretik seinale berriak jartzen badituzte, aipatutako paragrafoetan aurreikusitako adierazpenak errespetatu beharko dituzte.

10. artikulua

Hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarren bidaia-agiriak zigilatzea

1. Hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarren bidaia-agiriak sistematikoki zigilatuko dira sarreran eta irteeran. Sarrerako edo irteerako zigilua jarriko da:

- a) hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrei muga igarotzeko baimena ematen dieten agirietan, bisatu balioduna badute;
- b) estatu kide batek mugan bisatua eman eta hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrei muga igarotzeko baimena ematen dieten agirietan;
- c) bisaturik behar ez duten hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrei muga igarotzeko baimena ematen dieten agirietan;

2. 2004/38/EE Zuzentaraua aplikatzen zaion Batasuneko nazionalitateko hiritar baten senide den hirugarren herrialde bateko nazionalitateko hiritarra izanik, Zuzentarau horretako 10. artikuluan aipatzen den egoitza-baimena aurkezten ez badu, horren bidaia-agiriak sarreran zein irteeran zigilatuko dira.

Zirkulazio askerako eskubidearen onuraduna den hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duten hiritar baten senide den hirugarren herrialde bateko nazionalitateko hiritarra izanik, 2004/38/CE Zuzentarauko 10. artikuluan aipatzen den egoitza-baimena aurkezten ez badu, horren bidaia-agiriak sarreran zein irteeran zigilatuko dira.

3. Ez da sarrerako zein irteerako zigilurik jarriko:

- a) estatuburuaren edo pertsonaien bidaia-agirietan,

bide diplomatikotik modu ofizialean aurrez iragarri bada iritsiko direla;

- b) pilotu-baimenetan edo aireontzietako tripulazio-kideen txarteletan;
- c) estatu kide baten lurretan dauden itsasgizonen agirietan, beren itsasontziek eskalako portuaren zonaldean geldialdia egiten duen bitartean;
- d) VI. eranskineko 3.2.3. puntuaren arabera muga-ikuskapenak pasa behar ez dituzten gurutzaldietako itsasontzietako tripulazioaren eta bidaiarien bidaia-agirietan;
- e) Andorra, Monako eta San Marinoko nazionalitatea duten hiritarrei muga igarotzeko baimena ematen dieten agirietan;

Salbuespen gisa eta hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duten hiritarrak hala eskatuta, zailtasun garrantzitsuak ekarriko dizkiolako sarrera zein irteera zigiluak jarri gabe utz daitezke. Halakoetan, sarrera eta irteera aparteko orri batean dokumentatuko da eta bertan izena eta pasaporte-zenbakia adieraziko da. Orri hori hirugarren herrialdeko nazionalitatea duten hiritarrari emango zaio.

4. Zigilatzearen modalitate praktikoak IV. eranskinean zehazten dira.

5. Posible denean, hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrei jakinaraziko zaie mugetako zaindarien bidaia-agiriak sarreran zein irteeran zigilatzeke betebeharra dutela, nahiz eta, 8. artikuluari jarraiki, ikuskapenak malgutu.

6. Batzordeak, 2008 urtearen bukaera baino lehen, bidaia-agirien zigilatzeari buruzko xedapenen funtzionamendua jakinaraziko dio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari.

11. artikulua

Egonaldiaren iraupenari buruzko baldintzak betetzeari buruzko presuntzioa

1. Hirugarren herrialdeko nazionalitatea duten hiritar baten agiriak sarrera zigilurik ez badu, eskumena duten agintariek jo dezakete agiri horren jabeak ez dituela dagokion estatu kidean ezar daitezkeen egonaldiako baldintzak betetzen.

2. 1. paragrafoan jasotako presuntzioa ezeztatu ahal izango da hirugarren herrialdeko nazionalitatea duten hiritarrak, edozein bide dela medio, froga fidagarriak ematen baditu —hala nola, garraio-agiria edo estatu kideetako lurraldetik kanpo egon dela egiaztatzen duten frogak—, eta horiek egiaztatzen badute egonaldi laburraren iraupenaren baldintzak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

errespetatu dituela.

Hala bada:

a) hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarra Schengengo ondarea guztiz aplikatzen duten estatu kideen lurraldean aurkituz gero, eskumena duten agintariak, barne-zuzenbideari eta estatu horretan jarduteko moduari jarraituz, hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarraren bidaia-agirian adieraziko dute pertsona horrek zein egunetan eta zein lekutan igaro duen estatu kide horietakoren baten kanpoko muga;

b) hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarra 2003ko Atxikitze Aktaren 3. artikuluko 2. atalean adierazitako erabakia hartuta ez duen estatu kide baten lurraldean aurkituz gero, eskumena duten agintariak, barne-zuzenbideari eta estatu horretan jarduteko moduari jarraituz, hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarraren bidaia-agirian adieraziko dute pertsona horrek estatu kide horren kanpoko muga zein egunetan eta zein lekutan igaro duen.

a) eta b) idatz-zatietan adierazitako argibideez gain, hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarrari VIII. eranskinean jasota dagoen galdetegia eman ahal izango zaio

Estatu kideek elkarri jakinarazi behar diete artikuluko honek adierazitako jarraibideetan estatuan nola jarduten duten, eta Batzordeari eta Kontseiluko Idazkaritza Orokorrari ere jakinaraziko diote.

3. 1. paragrafoak aipatzen duen presuntzioa ezeztatzen ez bada, hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarra dagokion estatu kidearen lurretatik kanporatuko dute eskumena duten agintariak.

12. artikulua

Mugen zaintza

1. Mugen zaintzak muga baimenik gabe igaro dadin eragozteko du helburu, mugaz haraindiko delinkuentziari aurre egitea eta muga legez kanpo igaro duten pertsonen aurkako neurriak hartzea.

2. Mugetako zaindariak unitate finko eta mugikorren bidez zainduko dituzte mugak.

Pertsonen ez zaie utziko mugak muga-igarobideetako ikuskapenak egin gabe igarotzen, eta asmo hori burutik kenarazi behar zaie: horrela egingo da zaintza.

3. Dauden edo aurreikusi daitezkeen arrisku edo mehatxuei aurre egiteko egokiak diren baliabideak

eta metodoak erabiliz egingo du igarobideetako zaintza mugetako zaintzak, eta maiz eta bat batean aldatuko du zaindutako muga-zona, muga baimenik gabe igarotzen duenak antzemateko arriskua duela ikus dezan.

4. Zaintza unitate finko zein mugikorrek egingo dute; beren lana betetzeko patruilatu egin beharko dute edo puntu jakin batzuetan edo arriskutsuztat jotzen direnetan jarri, muga legez kontra igaro nahi duten pertsonak harrapatu ahal izateko. Zaintzarako, baliabide teknikoak ere erabili ahal izango dira, baliabide elektronikoak barne.

5. Zaintza arautuko duten arauak onartu ahal izango dira, 33. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen den prozedurari jarraituz.

13. artikulua

Sarrera ukatzea

1. Estatu kideetan sartzeko ukatuko zaie, sarrera baldintza guztiak —5. artikuluko 1. atalean zehazten den bezala— betetzen ez dituzten hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrei, ez badira 5. artikuluko 4. paragrafoan adierazitako kategorietako batekoak.

Hori ez da oztopo izango asilo-eskubideari eta nazioarteko babesaren eskubideari dagokion xedapen bereziak aplikatzeko edo iraupen luzeko bisatuak izapidetzeko.

2. Sarrera arrazoitutako erabaki baten bidez soilik ukatu ahal izango da, eta erabakian sarrera ukatzeko arrazoi zehatzak adierazi beharko dira. Erabakia barne-zuzenbidearen arabera dagokion agintariak hartuko du eta berehala jarriko da indarrean.

Sarrera ukatzearen benetako arrazoiak adierazten dituen arrazoitutako erabakia inprimaki normalizatu baten bidez emango zaio (V. Eranskineko B atalean dagoena bezalakoa), eta barne-zuzenbideak sarrera ukatzeko gaitutako agintaritzak beteko du. Inprimaki normalizatu hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarrari entregatuko zaio, inprimaki horren bidez egingo du sarrera ukatzen dion ebazpena hartu izanaren adierazpena.

3. Sarrera ukatzen zaien pertsonen erabaki hori errekurritu ahal izango dute. Errekurtsoak barne-zuzenbideak arautuko ditu. Hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarrari idatziz adieraziko zaizkio harremanetarako zenbait puntu, barne-zuzenbidearen arabera bere izenean jardun ahal izango duten ordezkariak buruzko informazio lortu ahal izateko.

Errekurtsoari hasiera emateak ez du sarrera ukatzeko erabakia bertan behera utziko.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Errekurtsoaren ondorioz sarrera ukatzea arrazoirik gabekoa izan dela erabakitzen bada, barne-zuzenbidearen arabera emandako kalte-ordainari eragin gabe, hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarrak eskubidea izango du sarrera ukatu dion estatu kidean, balio gabetutako sarrera zigilua zuzentzeko, bai eta egin dizkioten gainerako balio gabetzeak edo gehitzeak zuzentzeko ere.

4. Mugetako zaindarien ardura izango da sarrera ukatu zaion hirugarren herrialde bateko nazionalitateko hiritarra estatu kidearen lurretan ez sartzea.

5. Estatu kideek sarrera-ukatzeei buruzko estatistikak egingo dituzte, eta horietan hau adieraziko da: zenbat pertsonari ukatu zaion sarrera, zergatik ukatu zaien, zer nazionalitate duten, eta zer muga motatan (lurrekoa, airekoa, itsasokoa) ukatu zaion sarrera. Estatu kideek, urtean behin, Batzordeari helaraziko dizkiote estatistika horiek. Batzordeak, bi urtetik behin, estatu kideek helarazitako estatistiken bilduma argitaratuko du.

III. KAPITULUA

Mugen kontrolerako pertsonala eta bitartekoak eta estatu kideen arteko elkarlana

14. artikulua

Mugen kontrolerako pertsonala eta bitartekoak

Estatu kideek kanpoko mugetako kontrola 6tik 13ra bitarteko artikuluen arabera egiteko pertsonal eta bitarteko egokiak eta nahikoak izango dituzte, kanpoko mugetako kontrolen maila altua, uniforme eta eraginkorra bermatzeko.

15. artikulua

Kontrolak gauzatzea

1. Mugako kontrola 6tik 13ra bitarteko artikuluen arabera egiteko ardura mugetako zaindariei dagokie Erregelamendu honi eta barne-zuzenbidean adierazitakoari jarraituz. Mugako kontrol hori egitean, mugetako zaintzak eskumenak edukiko ditu barne-zuzenbideak ematen dizkion eta Erregelamendu honen aplikazio eremuan sartuta ez dauden akzio penalei ekiteko. Estatu kideek ziurtatu beharko dute mugetako zaintza behar bezalako prestakuntza jaso duten espezialistez osatuta egotea. Estatu kideek mugetako zaindariaz hizkuntzak ikastera animatuko dituzte, beren jarduerak burutzeko beharrezkoak direnak, batez ere.

2. 34. artikuluan ezarritakoari jarraituz, estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote barne-zuzenbidearen arabera zein zerbitzu nazionalak duten mugako

kontrolak egiteko ardura.

3. Mugako kontrola modu eraginkorrean egin ahal izateko, estatu kide guztiek elkarlan estua eta etengabekoa ziurtatu beharko dute mugako kontrolen ardura duten zerbitzu nazionalen artean.

16. artikulua

Estatu kideen arteko elkarlana

1. Estatu kideek laguntza emango diote elkarri eta elkarlan estua eta etengabekoa bermatzeko dute mugetako kontrol eraginkorrak egin ahal izateko, 6tik 15era bitarteko artikuluen arabera. Egoki den informazio guztia trukatzeko dute.

2. Estatu kideen kanpoko mugetako elkarlan operatiboa kudeatzeko Europako Agentziak (jarraian Agentzia deituko dena), 2007/2004/EE araudiaren bidez sortuak, kanpoko muga kudeaketan estatu kideen elkarlan operatiboa koordinatuko du.

3. Agentziaren eskumenei kalterik egin gabe, estatu kideek kanpoko mugetan elkarlanean operatiboan jardun ahal izango dute —loturako funtzionarioak trukatzeko barne—, bai elkarren artean, bai hirugarren herrialde batekin, elkarlan horrek Agentziaren jarduera osatzen badu.

Estatu kideek ez dute Agentziaren funtzionamendua eta haren helburuak arriskuan jar ditzakeen jarduerarik egingo.

Estatu kideek Agentziari aurreko paragrafoan aipatutako elkarlan operatiboari buruzko informazio eman beharko diote.

4. Estatu kideek mugako kontrolen arauak eta oinarriko eskubideei buruzko prestakuntza eman beharko dute. Horretarako, Agentziak zehaztu eta garatutako prestakuntza-arau komunak hartuko dira kontuan.

17. artikulua

Baterako kontrolak

1. Lurreko muga komunetan 20. artikulua aplikatzen ez duten estatu kideek, aukera izango dute, artikulua hau aplikatzeko data arte, muga komun horien kontrola beste estatuarekin batera egin ahal izango dute. Hala egiten bada, pertsona bat behin bakarrik gelditu ahal izango da sarrera- eta irteera-ikuskapenak egiteko, 6tik 13ra bitarteko artikuluetan estatu kide bakoitzari ematen zaizkion eskumenetan kalterik eragin gabe.

Horretarako, estatu kideek elkarren artean bi aldeko akordioak egin ahal izango dituzte.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Estatu kideek Batzordeari 1. paragrafoaren arabera hartutako akordioen berri emango diote.

IV. KAPITULUA

Mugetako ikuskapenetarako arau zehatzak

18. artikulua

Arau zehatzak muga-mota bakoitzerako eta kanpoko mugak igarotzeko erabilitako garraibide bakoitzerako

VI. eranskinean jasotako arau zehatzak muga-mota guztietan eta kanpoko mugak igarotzeko erabilitako garraibide guztietan egiten diren ikuskapenetan aplikatuko dira.

Arau zehatz horiek salbuetsi egin dezakete 5. artikuluan eta 7tik 13ra bitarteko artikuluetan adierazitako zerbait bete beharra.

19. artikulua

Zenbait pertsona-kategoriaren ikuskapenetarako arau zehatzak

1. VII. eranskinean adierazitako ikuskapen-arau zehatzak jarraian aipatzen diren pertsona-kategoria hauen ikuskapenei aplikatuko zaizkie:

- a) Estaturuak eta horien delegazioetako kideak;
- b) Aireontzien pilotuak eta tripulazioko beste kide batzuk;
- c) itsasgizonak,
- d) pasaporte diplomatikoak, ofizialak edo zerbitzukoak dituztenak eta nazioarteko erakundeetako kideak;
- e) mugaz haraindiko langileak;
- f) adin txikikoak.

Arau zehatz horiek salbuetsi egin dezakete 5. artikuluan eta 7tik 13ra bitarteko artikuluetan adierazitako zerbait bete beharra.

2. 34. artikuluari jarraituz, estatu kideek beren Kanpo Gaietako Ministerioak ordezkaritza diplomatikoetako eta kontsulatu etako akreditatutako kideei eta haien senideei emandako txartelen eredu berri eman beharko diote Batzordeari.

III. TITULUA

BARRUKO MUGAK

I. KAPITULUA

562/2006 Zuzentaraua (EBren Aldizkari Ofiziala, L 105 2006/04/13koa)

Barruko mugetako kontrolak kentzea

20. artikulua

Barruko mugak zeharkatzea

Barruko mugak edozein lekutan zeharkatu ahal izango dira, pertsonaren nazionalitatea edozein dela ere, inolako ikuskapenik egin gabe.

21. artikulua

Lurralde barruko ikuskapenak

Barruko mugetako kontrolak ezabatzeak ez du hauetan eraginik izango:

a) barne-zuzenbideari jarraiki, estatu kideetako eskumena duten agintarien polizia-eskumenak gauzatzean, baldin eta eskumen hori gauzatzeak mugetako ikuskapenen pareko eragina ez badu (puntu hau mugako zonetan ere aplika daiteke). Lehenengo esaldiaren zentzuari dagokionez, polizia-eskumenak gauzatzea ezingo da mugetako ikuskapenen parekotzat hartu, baldin eta neurri polizialak

i) mugen kontrola egiteko ez badira,

ii) segurtasun publikorako mehatxu izan daitezkeen izaera orokorreko polizia-informazioan eta -eskarmentuan oinarrituta badaude, eta horien helburua, bereziki, mugaz haraindiko delinkuentziari aurre egitea bada,

iii) kanpoko mugetan pertsonen ikuskapen sistematikoez erabat desberdinak badira, eratzeko moduari eta ezartzeko moduari dagokionez,

iv) ausazko ikuskapenak baliatuz egiten badira;

b) portu eta aireportuetako segurtasun ikuskapenetan, estatu kide bakoitzeko barne-zuzenbidearen arabera eskumena duten agintariak pertsonen gain egiten dituztenetan (portu edo aireportuetako arduradunek, edo garraiolariak egingo dituzte), baldin eta ikuskapen horiek estatu kide baten barruan bidaiatzen duten pertsonen ere egiten bazaizkie;

c) estatu kide batek bere barne-zuzenbidean agiriak edukitzeko edo berekin eramateko betebeharra ezartzeko aukeran;

d) hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrek, Schengengo hitzarmenaren 22. artikuluan arabera, estatu kide baten lurretan daudela adierazteko betebeharrean.

22. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Barruko mugetako errepideetako muga postuetan trafikoari oztopoak kentzea

Estatu kideek errepideko barruko mugetako muga-postuetan trafiko arina izateko oztopo guztiak kenduko dituzte, eta, batez ere, abiadura-mugak, bide-segurtasun irizpidean oinarritzen direnak izan ezik.

Era berean, estatu kideek ikuskapenak egiteko instalazioak eskaintzeko prestatuta egon beharko dute, barruko mugetan kontrolak berrezartzen badira.

II. KAPITULUA

Barruko mugetan kontrolak aldi baterako berrezartzea

23. artikulua

Barruko mugetan kontrolak aldi baterako berrezartzea

1. Ordena publikorako edo barruko segurtasunerako mehatxu larria baldin badago, estatu kideak —ez ohiko neurri gisa eta gehienez ere 30 egunerako, edo 30 eguneko epea gainditzen badu, mehatxu larriak jarraitzen duela uste den bitartean— barruko mugetan kontrolak jarri ahal izango ditu 24. artikuluan adierazitako prozedurari jarraituz, edo larrialdia bada, 25. artikuluan adierazitakoari jarraituz. Barruko mugetako kontrolak aldi baterako berrezartzen badira, ez da hedatuko mehatxu larriari aurre egiteko beharrezkoa dena baino gehiago eta ez du mehatxuak irauten duena baino gehiago iraungo.

2. Ordena publikorako edo barruko segurtasunerako mehatxu larriak 1. paragrafoan aurreikusitako epea baino gehiago irauten badu, estatu kideak muga kontrolak luzatu ahal izango ditu 1. paragrafoan adierazitako arrazoientatik; eta datu berriak baldin baditu, 30 egun baino gehiagokoak ez diren epeetan —epeok berriztatu ahal izango dira—, 26. artikuluan adierazitako prozedurari jarraituz.

24. artikulua

Aurreikusi daitezkeen gertaeretako prozedura

1. Estatu kideak 23. artikuluko 1. paragrafoari jarraituz barruko mugetan kontrolak jartzea aurreikusten duenean, gainerako estatu kideei eta Batzordeari jakinarazi beharko dio lehenbailehen eta eskura eduki bezain laster informazio hau eman beharko die:

a) zergatik aurreikusten den ikuskapenak berrezartzea (ordena publikorako edo barruko segurtasunerako mehatxu larri diren gertaerak zehaztuko dira);

b) aurreikusitako berrezarpenaren hedapena (kontrola zein tokitan berrezarriko den zehaztuko du);

c) zein diren egokitutako muga-igarobideak;

d) noiz hasiko den berrezartzen eta zenbat iraungo duen;

e) beharrezkoa balitz, gainerako estatu kideek hartu beharreko neurriak.

2. Dagokion estatu kidearen komunikatua jaso ondoren eta 3. paragrafoak aipatzen duen kontsulta dela-eta, Batzordeak irizpen bat egin ahal izango du, Ituneko 64. artikuluko, 1. paragrafoan adierazitakoari eragin gabe.

3. 1. paragrafoak aipatzen duen informazioa, eta Batzordeak 2. paragrafoaren arabera egin dezakeen irizpena, kontsultapean jarriko da, eta mugetako kontrolak berrezarri nahi dituen estatu kideak, gainerako estatu kideek eta Batzordeak aztertuko dituzte, beharrezkoa balitz estatu kideen arteko elkarlana antolatzeko, eta zenbait gauza aztertzeko: neurriak kontrolen berrezarpena eragin duten gertaerakiko proportzionalak diren aztertzeko, eta ordena publikorako edo barruko segurtasunerako mehatxuak aztertzeko.

4. 3. paragrafoak aipatzen dituen kontsultak mugetako kontrolak berrezarri baino hamabost egun lehenago egingo dira, gutxienez.

25. artikulua

Presaz ekin behar denean jarraitu beharreko prozedura

1. Estatu kide bateko ordena publikoak edo barruko segurtasunak presaz ekitea eskatzen badu, estatu kide horrek, neurri ez ohiko gisa, barruko mugetako kontrolak berehala berrezartzeko aukera izango du.

2. Barruko mugetan kontrolak berrezartzen dituen estatu kideak berehala jakinaraziko die beste estatu kideei eta Batzordeari, eta 24. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako informazioa emango die, eta hor prozedura justifikatzen duten arrazoiak azalduko.

26. artikulua

Barruko mugetan kontrolak luzatzeko prozedura

1. Estatu kideak 23. artikuluko 2. paragrafoari jarraituz bakarrik luzatu ahal izango dituzte barruko mugetako kontrolak, aurrez gainerako estatu kideei eta Batzordeari jakinarazita.

2. Kontrolak luzatzea aurreikusten duen estatu kideak gainerako estatu kideei eta Batzordeari barruko mugetan kontrolak luzatzeko arrazoiei buruzko informazio egoki guztia eman beharko die. 24.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoa aplikatu beharko da.

27. artikulua

Europako Parlamentuari informazioa ematea

Dagokion estatu kideak, edo bestela, Kontseiluak, Europako Parlamentuari lehenbailehen jakinaraziko dio 24, 25 eta 26. artikuluen arabera hartutako neurriak. 26. artikulua arabera jarraian egindako hirugarren luzapenaren ondoren, estatu kideak Europako Parlamentuari jakinarazi beharko dio, Parlamentuak hala eskatzen badio, zergatik dagoen barruko mugetako kontrola egin beharra.

28. artikulua

Barruko mugetan kontrolak berrezarrituz gero aplika daitezkeen xedapenak

Barruko mugetan kontrolak berrezartzen direnean, *mutatis mutandis*, II. tituluko xedapenak aplikatu beharko dira.

29. artikulua

Barruko mugetan kontrolak berrezartzeari buruzko txostena

23. artikulua arabera barruko mugetan kontrolak berrezarri dituen estatu kideak kontrolak kentzeko data berretsiko du, eta, horrekin batera edo ahalik eta epe laburrenean, Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari barruko mugetan kontrolak berrezartzeari buruzko txostena aurkeztuko dio. Txostenean, ikuskapenen funtzionamenduari eta mugako kontrolak berrezartzearen eraginkortasunari buruzko laburpena egingo du.

30. artikulua

Publikoari informazioa ematea

Barruko mugetan muga-kontrolak berrezartzeko erabakia modu gardenean hartuko da, eta berrezarpen horri buruzko informazioa emango zaio jendeari, hori ez egiteko benetako segurtasun-arrazoirik ez badago.

31. artikulua

Konfidentzialtasuna

Dagokion estatu kideak hala eskatuta, gainerako estatu kideek, Europako Parlamentuak eta Batzordeak kontrolen berrezarpena eta horren luzapena dela-eta emandako informazioaren konfidentzialtasuna errespetatuko dute, baita 29. artikulua arabera egindako txostenarena ere.

IV. TITULUA

AZKEN XEDAPENAK

562/2006 Zuzentaraua (EBren Aldizkari Ofiziala, L 105 2006/04/13koa)

32. artikulua

Eranskinen aldaketa

III, IV eta VIII. eranskinak 33. artikuluko 2. paragrafoan jasotako prozedurari jarraiki aldatuko dira.

33. artikulua

Komitea

1. Batzordeari komite batek lagunduko dio (hemendik aurrera «komitea» deituko zaio).

2. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, baldin eta prozedura honi jarraituz hartutako betearazpen-neurriek ez badituzte Erregelamendu honen oinarritzko xedapenak aldatzen.

1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluko 6. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da. 3. Komiteak bere barne araudia onartuko du.

4. Erregelamendu honetan arau teknikoak eta erabakiak 2. paragrafoan jasotako prozedurarekin bat onartu behar direla adierazten da. Horri buruzko xedapenak Erregelamendua indarrean jarri eta lau urtera bertan behera geldituko dira, jada onartutako betearazte-neurriei kalterik egin gabe. Batzordeak, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak proposatuta, xedapen horiek aztertu ahal izango dituzte, Itunaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, eta, helburu horrekin, lau urteko epea amaitu aurretik aztertuko dituzte.

34. artikulua

Jakinarazpenak

1. Estatu kideek Batzordeari hau jakinaraziko diote:

a) egoitza-baimenen zerrenda

b) muga-igarobideen zerrenda;

c) kanpoko mugak zeharkatu ahal izateko ezarritako zenbatekoak, bertako agintariekin urtero ezarritakoak;

d) mugako kontrolaren ardura duten zerbitzu nazionalen zerrenda;

e) Kanpo Gaietako Ministerioek emandako txartelen ereduak.

2. Batzordeak Estatu kideen eta jendearen eskura jarriko du 1. paragrafoaren arabera jakinarazitako informazioa. Horretarako, Europar Batasuneko Egunkari Ofizialeko C seriean argitaratuko da, bai eta

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

egoki jotzen diren beste hedabide batzuetan ere.

35. artikulua

Mugako trafiko txikia

Erregelamendu honek ez dio eragingo mugetako trafiko txikiari buruzko komunitateko arauari, ezta alor horretan indarrean dauden bi aldeetako akordioei ere.

36. artikulua

Ceuta eta Melilla

Erregelamendu honen xedapenek ez diote eragingo Ceuta eta Melillako hiriei aplikatzen zaien erregimen bereziari, Espainiako Erresumak Ceuta eta Melilla hiriei buruz egindako Adierazpenean zehazten den bezala. Adierazpen hori 1985eko ekainaren 14an Espainiako Erresuma Schengengo Akordioa aplikatzeko hartutako hitzarmenari atxikitzeak Akordioaren Azken Aktan¹ jasota dago.

37. artikulua

Estatu kideek informazioa jakinaraztea

Beranduenez 2006ko urriaren 26an, estatu kideek Batzordeari jakinarazi beharko dizkiote 21. artikuluko c) eta d) idatz-zatiei buruzko xedapen nazionalak, 4. artikuluko 3. paragrafoak aipatzen dituen zigorrak eta 17. artikuluko 1. paragrafoari jarraituz sinatutako bi aldeko akordioak. Xedapen horiei gerora egindako aldaketak bost eguneko epean jakinarazi beharko zaizkio.

Estatu kideek jakinarazitako informazio hori Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratuko da, C seriean.

38. artikulua

III. tituluaren aplikazioari buruzko informazioa

Beranduenez 2009ko urriaren 13an, Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari III. tituluaren aplikazioari buruzko txostena aurkeztuko dio.

Batzordeak arreta berezia jarriko du barruko mugetan kontrolak berrezartzeak eragin dituen zailtasunetan. Eta, beharrezkoa balitz, zailtasun horiei aurre egiteko proposamenak aurkeztuko ditu.

39. artikulua

Indargabetzeak

¹ DO L 239 2000.9.22koa, 73. or

562/2006 Zuzentaraua (EBren Aldizkari Ofiziala, L 105 2006/04/13koa)

1. 1985eko ekainaren 14ko Schengengo Akordioa aplikatzeko hartutako hitzarmeneko 2tik 8ra bitarteko artikulua indargabetu egingo dira 2006ko urriaren 13tik aurrera.

2. Aipatutako data horretatik aurrera, 1. paragrafoan hauek indargabetu egingo dira:

a) Eskuliburu komuna eta horren eranskinak;

b) 1994ko apirilaren 26ko Schengengo Batzorde exekutiboaren erabakiak [SCH/Com-ex (94) 1, rev.2], 1994ko abenduaren 22koa [SCH/Com-ex (94) 17, 4^a rev.] eta 1995eko abenduaren 20koa [SCH/Com-ex (95) 20, 2^a rev.],

c) Jarraibide Kontsular Erkidearen 7. eranskina;

d) 2001eko apirilaren 24ko Kontseiluaren 2001/790 Erregelamendua¹. Erregelamendu horren bidez Kontseiluak zenbait eskumen beretzat gordetzen ditu, garapen-arau jakin batzuei buruzkoak eta mugetako kontrolak eta zaintza egiteko prozedura praktikoei buruzkoak.

e) 2004ko apirilaren 29ko Kontseiluaren 2004/581/EE Erabakia², kanpoko mugagiarobideetan dauden seinaleetan erabili beharreko gutxieneko adierazpenak zehazten dituena.

f) 2004ko apirilaren 29ko Kontseiluaren 2004/574/EE Erabakia³, Eskuliburu komunaren aldaketei dagokiona

g) Kontseiluaren 2004/2133/EE Araudia, 2004ko abenduaren 13koa⁴. Estatu kideetako eskumena duten agintariak hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrek Estatu kide bateko kanpoko mugak zeharkatzeko garaian bidaia-agiriak sistematikoki zigilatzea behartzen dituena eta Schengen Akordioaren eta Eskuliburu komunaren aplikazio-hitzarmenaren xedapenak aldatzean dituena

3. Ezabatutako artikuluei eta indargabetutako ekintzei aipamenak Araudi honi egiten zaizkiola ulertuko da.

40. artikulua

¹ DO L 116, 2001.4.26koa, 5.or. 2004/927/CE erabakiak (2004.12.31ko DO L 396, 45.or.) aldatutako araudia.

² DO L 261, 2004.8.6koa, 119. or,

³ DO L 261, 2004.8.6koa, 39. or,

⁴ DO L 369, 2004.12.16koa, 5. or

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Indarrean sartzea

Erregelamendu hau 2006ko urriaren 13an sartuko da indarrean. Dena dela, 34. artikulua Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean

Erregelamendu honen elementu guztiak derrigorrezkoak izango dira eta estatu kideetan zuzenean aplikatu beharrekoa, Europako Erkidegoa eratzeko itunari jarraiki.

Estrasburgon egin, 2006ko martxoaren 15ean.

Europako Parlamentutik
Presidentea
J. BORRELL FONTELLES

Kontseilutik
Presidentea
H. WINKLER

I ERANSKINA

Sarrera baldintzak betetzen direla egiaztatu ahal izateko agiri justifikatiboak

5. artikuluko 2. atalak aipatzen dituen justifikanteak honako hauek izan daitezke:

a) Negozio-bidaietarako:

i) enpresa edo agintari batek egindako gonbidapena, merkataritza-, industria-, edo lan-izaerako bileretan, konferentzietan edo ekintzetan parte hartzeko;

ii) Harreman komertzialak zein lanekoak daudela egiaztatzen duten beste agiri batzuk;

iii) Azoka eta kongresuetarako sarrera-txartelak, halako batera joatekoa bada;

b) Ikasketa edo beste prestakuntza-mota baterako egindako bidaiak

i) Irakaskuntza-zentro bateko matrikula-agiria, ikastaro teoriko eta prestakuntza praktikoa zein hobekuntzan parte hartzeko;

ii) ikasle-txartela edo egindako ikastaroen agiriak;

c) izaera turistikoa edo pribatua duten bidaietarako:

i) ostatuari buruzko agiri justifikatiboak:

— partikular baten etxean ostatu hartu behar bada, pertsona horren gonbidapena

— Ostatua hartu izana justifikatzen duen agiria edo aurreikusitako ostatua adierazten duen beste edozein agiri;

ii) Egingo den ibilbideari buruzko agiriak:

Bidaia antolatu baten erretserbaren egiaztapena edo bidaia-planak adierazten duen beste edozein agiri;

iii) itzulerako bidaiari buruzko agiriak:

itzulerako txartela edo ibilbide turistikoa;

d) izaera politikoa, zientifikoa, kulturala edo erlijiosoa duten bidaietarako edota beste arrazoi batzuetarako bidaietarako:

gonbidapenak, sarrera-txartelak, erretserbak edo programak, ahal den neurrian gonbidapena egiten duen erakundearen izena adierazten duela eta egonaldiaren iraupena edo bisitaren helburua adierazten duen beste edozein agirirekin.

II ERANSKINA

Informazioaren kontsignazioa

Mugetako igarobide guztietan eskuz edo elektronikoki zerbitzuari buruzko informazio nabarmen guztia erregistratuko da, baita garrantzitsuak diren datu guztiak ere.

Zehazki honako informazio hau kontsignatu beharko da:

- a) Mugako kontrol-postuko ardura duen mugako zaindariaren izena, eta taldeetako gainerako gardiena;
- b) 8. artikulua arabera pertsonen kontrola malgutu den;
- c) mugan, pasaportearen eta bisatuen balioa duten agiririk izapidetu den;
- d) egiaztatutako arau-hausteak eta aurkeztutako erreklamazioak (arau-hauste penal eta administratiboak)
- e) 13. sarrera ukatu izana artikulua arabera (sarrera ukatzeko arrazoiak eta nazionalitatea)
- f) sarrera- eta irteera-zigiluen segurtasun-kodeak, une edo txanda jakin batean zigilu jakin bat izendatuta duten mugetako gardien nortasuna, baita galdutako edo lapurtutako zigiluei buruzko informazioa ere;
- g) ikuskapenak jasan dituzten pertsonen erreklamazioak;
- h) bereziki garrantzitsuak diren beste neurri polizial eta judizial batzuk;
- i) gertaera bereziak.

III. ERANSKINA

Muga igarobideetako errenkadetako seinaleen ereduak

A ZATIA

PARTE A



(¹)

(1)


(1) Norvegia eta Islandiari aplikatu ezin daitezkeen logotipoak

B ZATIA

**TODOS LOS
PASAPORTES**

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

C ZATIA



(1)



(1)



(1)

(1) Norvegia eta

Islandiari aplikatu ezin daitezkeen logotipoak



IV. ERANSKINA

Zigiluak jartzea

1. Hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarren bidaia-agiriak sistematikoki zigilatuko dira sarreran eta irteeran, 10. artikulua adierazten duenari jarraiki. Zigilu horien ezaugarriak Schengengo Batzorde Exekutiboaren erabaki hauetan adierazita daude: SCH/COM-EX (94) 16 rev. eta SCH/Gem-Handb (93) 15 (CONFIDENTIAL).

2. Zigiluen segurtasun-kodeak aldi-aldi aldatuko dira, hilabete baino gehiagokoak ez diren tartetan.

3. Sarreran eta irteeran bisatua behar duten hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrei zigilua jarriko zaie, eta ahal bada, bisatuaren izkina estaliz baina bisatuko datuak ondo irakurtzeko moduan eta bisatuaren etiketan dauden segurtasun-elementuei eragin gabe.

Zigilu bat baino gehiago jartzea beharrezkoa denean (adibidez: sarrera-bisatu anitzak), bisatua dagoen orriaren aurkakoan jarriko dira.

Orrialde hori erabiltzerik ez bada, zigilua hurrengo orrialdean jarriko da. Ez da zigilurik jarriko irakurketa optikoaren eremuan.

4. Muga-igarobideetan erabiltzen diren sarrera- eta irteera-zigiluetako segurtasun-kodeei buruzko informazioa trukatzeko, harremanetarako puntu nazionalak izendatuko dituzte estatu kideek; eta jakinarazi egingo dizkiete estatu kideei, Kontseiluko Idazkaritza Orokorrari eta Batzordeari. Harremanetarako puntu horietatik dagokion estatu kidearen kanpoko mugetan erabilitako sarrera- eta irteera-zigilu bateratuei buruzko informazioa eskuratu ahal izango da inolako atzerapenik gabe, eta, zehazki, honako alderdiei buruzko informazioa:

- a) zigilu jakin bat zein muga-igarobideri dagokion;
- b) zigilu jakin bat une jakin batean mugetako zein guardiari dagokion;
- c) zigilu jakin batek zer segurtasun-kode duen une jakin batean.

Sarrera- eta irteera-zigilu bateratuei buruzko edozein ikerketa lehen aipatutako harremanetarako puntu nazionalen bidez egingo da.

Harremanetarako puntu nazionalak, gainera, gainerako harremanetarako puntuei eta Kontseiluaren Idazkaritza Orokorra eta Batzordeari harremanetarako puntuen aldaketari buruzko informazioa helarazi beharko diete, baita galdutako eta lapurtutako zigiluei buruzkoa ere.

V Eranskina

A ZATIA

Mugako sarrera ukatzeko prozedura

1. Sarrera ukatuz gero, mugetako guardiako eskumena duen agenteak:

a) B zatian agertzen den sarrera ukatzeko galdetegi estandarra beteko du, eta hirugarren herrialde bateko interesdunak sinatu beharko du. Horrek sinatutako galdetegiaren kopia jasoko du. Hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarrak sinatzeari uko egiten badio, mugetako guardiako agenteak horren berri eman beharko du galdetegiko «Oharrak» atalean;

b) pasaportean sarrerako zigilu ezabatua jarriko du, tinta beltz kenezinez gurutze bat eginez, eta data jarriko du hori ere tinta kenezinez. Sarrera ukatzeko arrazoari edo arrazoiei dagozkien hizkiak lehen aipatutako sarrera ukatzeko ereduari jarriko dira

c) bisatua baliogabetuko du, BALIGABETUA zigilua jarritz, 2. puntuan aurreikusitako kasuetan. Hala egiten bada, bisatuaren etiketako gailu optiko aldagarria, irudi latentearen segurtasun-gailua eta bisatu terminoa ezabatu egin beharko dira, gurutze bat jarritz, gerora legez kanpo erabil ez daitezkeen Mugetako guardiako agenteak berehala jakinarazi beharko die erabaki hori agintari zentrali

d) Sarrera-ukapen guztiak erregistro batean edo zerrenda batean jaso beharko ditu. Hor hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duen hiritarren nortasuna eta nazionalitatea jarriko du, hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarrari muga igarotzeko baimena ematen dion agiria, eta sarrera ukatu zaion data.

2. Bisatua honako kasu hauetan baliogabetuko da:

a) SISEan bisatuaren jabea ez onartzeko deskripzioa badago; kasu honetan izan ezik: estatu kide batek izapidetutako bisatua edo itzulera-bisatua badu eta sartzeko arrazoia agiria izapidetu duen estatu kidera joateko bidea egitea bada.

b) bisatua legez kanpo lortu izanaren zantzu sendoak baldin badaude

Dena dela, hirugarren herrialde bateko nazionalitatea duen hiritarrak, muga, 5. artikuluko 2. atalean aipatutako agiri justifikatiboak aurkezteko betebeharra ez betetzea, ez da bisatua automatikoki baliogabetzeko erabakia hartzeko nahikoa izango.

3. Sarrera ukatu zaion hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarra kanpoko mugaraino garraio-enpresa batek eraman badu, mugetako guardiako agenteak:

a) enpresari aginduko dio hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarrak eta horren garraioaz arduratzeko, dela ekarri duten hirugarren herrialdera itzultzeko, dela muga zeharkatzeko baimen-agiria izapidetu duen herrialdera itzultzeko, dela onartuko duen beste edozein herrialdetara eramateko, edota aginduko dio itzulera-bidaia egiteko modua aurkitzeko. Hori guztia arau hauetan oinarrituta: Schengen hitzarmeneko 26. artikuluan, eta 2001eko ekainaren 28ko Kontseiluaren 2001/51/EE Zuzentarauan (Zuzentarau horretan 1985eko ekainaren 14ko Schengengo Akordioaren aplikazio-hitzarmeneko 26. artikuluko xedapenak osatzen dira)

b) enpresa hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarraren kargu egiten den arte, tokian tokiko egoera kontuan hartuzeta barne-zuzenbideari jarraiki, behar diren neurriak hartuko dituzarera ukatu zaion hirugarren herrialdeko

nazionalitatea duten hiritarrak legez kanpo sar ez daitezten

4. Sarrera ukatzeaz gain hirugarren herrialdeko nazionalitatea duen hiritarra atxilotzeko arrazoirik egongo balitz, mugetako guardiako agentea agintari judizialekin harremanetan jarriko da, barne-zuzenbideari jarraiki, zer neurri hartu erabakitzeko

(1) 2001.7.10eko DO L 187, 45.or.

B ZATIA

Sarrera ukatzeko galdetegi estandarra

Estatua

Estatuaren logotipoa (zerbitzu arduraduna)

MUGAN SARRERA UKATZEA

Eguna: _____ Ordua: _____ Muga: _____

Behean sinatzen duen agentearen (_____) aurrean jaun/andre hau agertu da:

Abizena(k): _____ Izena: _____

Jaioteguna: _____ Herria: _____ Sexua: _____

Nazionalitatea: _____ Bizilekua: _____

Identifikazio-agiria: _____ Zk.: _____

Non emana: _____ Eguna: _____

Bisatu-zenbaki hau duela: _____ Honek emana: _____

Balioduna _____ tik _____ ra

Egonaldiko egunak: _____ Egonaldiaren arrazoiak: _____

Jatorria: _____, Sartzeko modua: _____ (adierazi erabilitako garraio-bidea;

esaterako, hegaldi-zenbakia). Jakinarazten zaio mugan sarrera ukatzeko ebazpena eman dela, honi jarraiki (*barneko indarreko zuzenbideko zioa*), arrazoi hauek direla-eta:

- A) Ez du bidaia-agiri baliodunik
- B) Bidaia-agiria faltsua da / faltsututa dago / eraldatuta dago
- C) Ez du bisatu edo egoitza-baimen baliodunik
- D) Bisatua edo egoitza-baimena faltsua da / faltsututa dago / eraldatuta dago
- E) Ez du egonaldiaren arrazoiak eta baldintzak arrazoitzen dituen agiri egokirik.
Ezin izan ditu agiri hauek aurkeztu: _____
- F) Azken sei hilabeteetan hiru hilabete eman ditu jada Europar Batasuneko estatu kideen lurraldean.
- G) Ez du bizirauteko nahikoa bitartekorik adierazitako egonaldia eta egoteko modua bermatzeko, ez eta jatorriko edo iraganbideko herrialdera itzultzeko.
- H) Onartezin moduan inskribatuta dago
SISean
Erregistro nazionalen
- I) Arriskutsutzat jotzen da Europar Batasuneko estatu kide baten ordena publikorako, barne-segurtasunerako, osasun publikorako edo nazioarteko harremanetarako (*estatu bakoitzak, nahitaez, ezar dakioken barne-zuzenbidea adierazi beharko du, sarrera ukatzeko arrazoiak hain bada*)

Oharrak:

Interesdunak errekurtsoa aurkeztu ahal izango du sarrera ukatzeko ebazpenaren aurka, barne-zuzenbideak ezarritakoari jarraiki. Interesdunari agiri honen kopia emango zaio ((*estatu bakoitzak, nahitaez, ezar dakioken barne-zuzenbidea adierazi beharko du, (estatu bakoitzak, nahitaez, ezar dakioken barne-zuzenbidea adierazi beharko du, bai eta errekurtsoa aurkezteko prozedura ere*).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Interesdunaren sinadura

Kontrolaren ardura duen
agentearen sinadura

Logotipo hori ezin zaio Norvegiari eta Islandiari aplikatu

VI ERANSKINA

Muga-mota ezberdinetarako eta kanpoko mugak zeharkatzeko erabilitakogarraiobide-motetarako arau espezifikoak

1. Lurreko mugak

1.1. Bide-trafikoaren ikuskapena

1.1.1. Segurtasunari eta errepideko trafiko-fluxuari eragin gabe pertsonen ikuskapen eraginkorra bermatzeko, muga igarobideetan trafikoa modu egokian erregulatuko da. Beharrezkoa balitz, estatu kideek bi aldeko akordioak egin ditzakete trafikoa bideratu edo ixteko. Batzordeari horren berri eman beharko diote, 37. artikuluari jarraiki

1.1.2. Lurreko mugetan, estatu kideek, egoki ikusten badute eta egoerak horretarako aukera ematen badu, muga-igarobide jakin batzuetan aparteko errenkadak jarri ahal izango dituzte 9. artikuluari jarraiki.

Estatu kideetako eskumena duten agintariek aparteko errenkaden erabilera edozein unetan bertan behera utzi ahal izango dute egoera berezietan eta trafiko- edo azpiegitura-baldintzek hori eskatzen badute

Estatu kideek mugakide diren herrialdeekin elkarlanean jardun ahal izango dute lurreko muga-igarobideetako aparteko errenkadak antolatzeke

1.1.3. Ibilgailuetan bidaiatzen duten pertsonen, arau orokor moduan, kontrolak irauten duen bitartean ez dute ibilgailutik jaitsi behar izango Dena dela, egoerak hala eskatzen badu, pertsonen ibilgailutik ateratzeko eska dakieke Ikuskapen zorrotzak, tokian tokiko egoerak aukera ematen badu, horretarako aurreikusitako lekuetan egingo dira. Langileen segurtasuna dela-eta, ahal denean, ikuskapenak mugetako guardiako bi agentek egingo dituzte.

1.2. Tren-trafikoaren ikuskapena

1.2.1. Kanpoko muga zeharkatzen duten trenetako bidaiariak zein treneko langileak ikuskatuko dira, baita merkantzia-trenetan edo hutsik doazen trenetan ere. Ikuskapen egiteko bi modu hauetako bat erabiliko da:

— bai nasan, estatu kide baten lurraldeko sarrera edo irteerako lehen geltokian,

— bai trenetan bertan, ibilbidean zehar.

Estatu kideek bi aldeko akordioak egin ahal izango dituzte ikuskapenak egiteko zehazteko. Batzordeari horren berri eman beharko diote, 37. artikuluari jarraiki.

1.2.2. 1.2.1 puntuan adierazitakoa dena dela ere, eta abiadura handiko bidaiari-trenen zirkulazioa errazteko asmoz, estatu kideren baten lurraldetik igaro eta hirugarren herrialderen batetik datozen trenak izanik, estatu kideek erabaki ahal izango dute, eragindako hirugarren herriekin akordio batera iritsiz, hirugarren herrialdeetatik datozen trenetako bidaiarien sarrera-ikuskapena modu hauetakoren batean egitea:

— bidaiariak igoko diren hirugarren herrialdeko geltokietan

— bidaiariak jaitsiko diren estatu kidearen geltokietan

— edo bi geltoki horien arteko ibilbidean, trenean bertan eta estatu kidearen lurraldearen barruan, betiere, bidaiariak aurreko geltokiren batean eta trenean baldin badaude

1.2.3. Hirugarren herrialdeetatik datozen eta estatu kidearen lurraldean geldialdi bat baino gehiago egiten dituzten abiadura handiko trenak izanik, tren-garraioko konpainiak estatu kidearen lurraldearen barruan egingo den ibilbidean bidaiariak hartzeko baimena baldin badu, bidaiari horiei sarrera-ikuskapena egingo zaie, bai trenean, bai helmugako geltokira iristen direnean, baldin eta 1.2.1. puntuaren edo 1.2.2. lehen gidoia atalaren arabera ikuskapenik egin ez bazaie.

Trena abiatu aurretik, ibilbidea estatu kideetako lurraldearen barruan egingo duen trenera igo nahi duten pertsonen jakinaraziko zaie ikuskapena pasa beharko dutela, ibilbidean bertan edo geltokira iritsitakoan

1.2.4. Aurkako norabidean bidaiatzen bada, trenean dauden pertsonen irteera-ikuskapenak pasa beharko dituzte, prozedura berari jarraiki

1.2.5. Beharrezkoa balitz treneko buruaren laguntzarekin, mugetako guardiako agenteak eskatu ahal izango du hutsik dauden bagoi-atalak ikuskatzea, mugetako ikuskapenak pasa behar dituzten pertsona edo objektuak gorde ez direla ziurtatzeko

1.2.6. Susmorik egongo balitz trenean deskripzio bat duten edo delituren bat egin duten pertsonak gorde direla edo legez kanpo sartu nahi duten hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten hiritarrak daudela, kontrolaren ardura duen mugetako guardiako agenteak horren berri eman ahal izango die trena abiatzen den edo pasako den estatu kideei, berak bere herrialdeko xedapenen arabera ekiterik izango ez balu.

2. Aireko mugak

2.1. Nazioarteko aireportuetako ikuskapen-modalitateak

2.1.1. Estatu kideetan eskumena duten agintariak arduratuko dira aireportuko enpresak beharrezko neurriak hartuko dituela barruko hegaldietako bidaiarien fluxua eta beste hegaldietako bidaiariena fisikoki banatzeko. Horretarako, nazioarteko aireportu guztietan beharrezko azpiegiturak ezarri beharko dira

2.1.2. Mugako ikuskapenak egiteko lekua honela zehaztuko da:

a) Hirugarren herrialde bateko hegalditik etorri eta barruko hegaldia hartzen duen bidaiariak sarrera-ikuskapen bat pasa beharko dute hirugarren herrialdeko hegaldia iristen den aireportuan Hirugarren herrialde baterako hegaldia hartzen duten barruko hegaldi bateko bidaiariak (hegaldi-lotura egin behar duen bidaiaria) irteera ikuskapena pasa beharko du hirugarren herrialderako hegaldia hartzen duen aireportuan;

b) hirugarren herrialdeetatik datozen edo hara doazen hegaldietan, hegaldi-lotura egin behar duten bidaiaririk gabekoak, eta estatu kideetako aireportuetan aireontzitik atera gabe eskala egiten duten hegaldietan:

i) estatu kideen herrialdean lehenagoko edo geroagoko loturarik ez duten eta hirugarren herrialdeetatik datozen edo hara doazen hegaldietako bidaiariak sarrera-ikuskapena pasa beharko du helmugako aireportuan eta irteera-ikuskapena irteerako aireportuan,

ii) hirugarren herrialdeetatik datozen edo hara doazen hegaldietan, geldialdiak estatu kideen lurraldean aireontzitik atera gabe badituzte (igarobideko bidaiariak) eta estatu kidearen lurraldean bidaiaririk hartzen badute, bidaiariak sarrera-ikuskapen bat pasa beharko du helmugako aireportuan eta irteera-ikuskapena dagokion irteera-aireportuan,

iii) Aireko garraioko konpainiak aukera izango balu hirugarren herrialdeetatik datozen eta estatu kideen lurretan geldialdiak egiten dituzten hegaldietan bidaiariak hartzeko lurralde horren barruan egiten diren ibilbideetarako, bidaiari horiek irteera-ikuskapena pasa beharko dute irteera-aireportuan eta sarrera-ikuskapena helmugako aireportuan.

Geldialdia egitean hegazkinean dauden eta hegazkinean estatu kide batean sartu ez diren bidaiariak, b) hizkia ii) tartekiaren arabera ikuskapena izango dute. Aurkako prozedura aplikatuko zaie kategoria horretako hegaldiei helmugako herrialdea hirugarren herrialde bat denean.

2.1.3. Oro har, mugetako ikuskapenak ez dira hegazkinean edo horren atean egingo, ez badu hala egitea arrazoitzen arriskuen balorazioak, barne-segurtasunaren eta legez kanpoko immigrazioaren ikuspegitik. Muga-igarobide izendatutako aireportuetan pertsonen ikuskapenak 6tik 13rako artikuluen arabera egiten direla ziurtatzeko, estatu kideen ardura izango da aireportuko arduradunak behar diren neurriak hartzen dituela bermatzea bidaiarien trafikoa ikuskapenerako erreserbatutako instalazioetara bideratzeko.

Estatu kideek bermatuko dute aireportuko enpresak behar diren neurriak hartzen dituela eremu erreserbatuetan (hala nola, igarobide eremuan) sartzeko baimena ez duten pertsonak bertara ez sartzeko eta bertatik ez ateratzeko. Oro har, mugetako ikuskapenak ez dira igarobide-eremuetan egingo, ez badu hala egitea arrazoitzen arriskuen balorazioak, barne-segurtasunaren eta legez kanpoko immigrazioaren ikuspegitik. Eremu horietan ikuskapenak egin ahal izango zaizkie aireportuko igarotze-bisatua behar duten pertsonen, bisatu hori baduten jakiteko

2.1.4. Halabeharrezko kasuetan, hur-hurreko arriskua dagoenean edo agintariek hala aginduta hirugarren herrialde batetik datorren hegazkin batek muga igarobidea ez den eremu batean lur hartu beharko balu, hegazkin horrek bere hegaldia jarraitu ahal izateko ezinbestekoa izango da mugetako gardien baimena eta aduanetako agintarien baimena izatea. Gauza bera egingo da hirugarren herrialde batetik datorren hegazkin batek baimenik gabe lur hartzen badu. Dena dela, 6tik 13ra bitarteko artikuluetako xedapenak aplikatuko zaizkie hegazkin horretan bidaiatzen duten pertsonen ikuskapenei.

2.2. Aerodromoetako ikuskapen-modalitateak

2.2.1. Pertsonen ikuskapena 6tik 13rako artikuluen arabera egiten direla bermatuko da, baita ere, dagokion barne-zuzenbidearen arabera nazioarteko aireportu izaera ez duten aireportuak («aerodromoak») izanik hirugarren herrialdeetatik datozen edo hara doazen hegaldia desbideratzeko baimena dutenetan

2.2.2. 2.1.1 puntuan adierazitakoa dena dela ere, aerodromoetan ez dago aparteko instalaziorik egin beharrik barruko

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

hegaldietako eta beste hegaldietako bidaiariak fisikoki banatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 2320/2002 Erregelamenduak⁽¹⁾ ezarritakoaren kaltetan gabe (hegaldi zibilen segurtasunerako arau komunak ezartzen ditu). Gainera, aerodromoetako trafikoaren bolumenak eskatzen ez badu, ez da beharrezkoa izango mugetako guardiak modu iraunkorrean bertan egotea, bermatu egiten bada, betiere, behar denean guardia horiek garaiz egongo direla.

2.2.3. Mugetako guardiako agenteak aerodromoetan modu iraunkorrean egongo ez balira, aerodromoa kudeatzen duen enpresak mugetako guardiako agenteei nahikoa denboraz jakinarazi beharko diote hirugarren herrialdeetatik datorren edo hara doan hegaldiren batek lur hartu edota aireratu behar duela.

2.3. Hegaldiri pribatuetan pertsonak ikuskatzeko modalitateak

2.3.1. Hirugarren herrialdeetatik datozen edo hara doazen hegaldi pribatuetan, komandanteak, aireratu baino lehen, adierazpen orokor bat bidaliko dio helmuga den estatu kideko mugetako guardiari, eta, beharrezkoa balitz, lehenik sartuko den estatu kideari. Adierazpen horretan, hegaldiaren plana jasoko da Nazioarteko hegaldi zibilari buruzko hitzarmenaren 2 eranskinaren adierazitako moduan, baita bidaiarien nortasunari buruzko informazioa ere.

2.3.2. Hirugarren herrialde batetik datorren hegaldi pribatuak estatu kide batean helmuga izan eta beste estatu kide batean egiten badu geldialdia, estatu kidean eskumena duten agintariak mugako ikuskapena egingo diote eta sarrera-zigilua jarriko dute 2.3.1 puntuan aipatzen den adierazpen orokorrean.

2.3.3. Ezin bada ziur jakin estatu kideetatik datorren hegaldi bat dela eta helmuga estatu kideren bat dela hirugarren herrialde batean geldialdirik egin gabe, eskumena duten agintariek, aireportu eta aerodromoetan, pertsonen ikuskapenak egingo dituzte 2.1 eta 2.2 puntuei jarraiki.

2.3.4. Barne-zuzenbidearen eta aldebiko akordioaren arabera zehaztuko dira distantzia laburrak bakarrik egin ditzaketen planeagailuen, hegazkin arinen, helikopteroen eta artisau-fabrikazioko hegazkinen sarrera- eta irteera-erregimena, bai eta aerostatoena ere.

3. Itsasoko mugak

3.1. Itsasoko trafikoaren ikuskapenentarako modalitate orokorrak

3.1.1. Ikuskapenak sarrerako edo irteerako portuan egingo dira, itsasontzian bertan, edo itsasontziaren inguruan horretarako jarritako eremuan. Dena dela, gai honetan hartutako akordioei jarraiki, ikuskapenak itsasontziak egiten duen ibilbidean zehar ere egin ahal izango dira, edo itsasontzia hirugarren herrialde bateko lurretara iristen denean edo lurralde horretatik ateratzean

Ikuskapenen helburua hau izango da: tripulazioak zein bidaiariek 5. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten ikustea, 19. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letran ezarritakoaren kaltetan gabe.

3.1.2. Itsasontziko kapitainak edo, bestela, itsasontzia armatzearekin lotutako funtzio guztietan armadorea ordezkatzeko duen pertsona fisiko zein juridikoak (itsas agenteak) tripulazioaren eta bidaiarien zerrenda bat egin beharko du, bi aletan. Zerrenda mugetako guardiako agenteei eman beharko die, beranduenez ere portura iritsi bezain laster. Dena dela, eta halabeharrik eraginda hori posible ez bada, zerrendaren kopia bat emango die muga-

igarobidekoei edo eskumena duen itsasoko agintariari, eta horiek berehala bidaliko die mugetako guardiari.

3.1.3. Itsasontziko kapitainari bi zerrenden kopia bana itzuliko zaio, mugetako guardiako agenteak behar bezala bisatua, eta kapitainak itsasontzia portuan dagoen bitartean gorde beharko du, eta eskatzen zaionean erakutsi.

⁽¹⁾ 2002.12.30eko DO L 355, 1. or. 849/2004/EE Erregelamenduak aldatutako erregelamendua (2004.4.30eko DO L 158, 1. or)

3.1.4. Itsasontziko kapitainak edo, bestela, itsas agenteak, berehala jakinarazi beharko du tripulazioan osaeran edo bidaiarien kopuruan eragiten duen gertaera oro.

Era berean, itsasoko kapitainak eskumena duten agintariei berehala jakinaraziko die itsasontzian ezkutuko bidaiariak daudela, eta, posible bada, itsasontzia portuan sartu aurretik jakinaraziko die. Dena dela, ezkutuko bidaiariak itsasontziko kapitainaren ardurapean egongo dira.

3.1.5. Itsasontziko kapitainak mugetako guardiako agenteei nahikoa denboraz jakinarazi beharko die itsasontziaren irteera, eta portu bakoitzean indarrean dauden xedapenei jarraiki egin. Hori posible ez denean, eskumena duen itsas agintaritzari jakinaraziko dio. Lehen egindako eta bisatutako zerrenden bigarren alea mugetako guardiako agenteei itzuliko zaie edo eskumena duen itsas agintariei.

3.2. Nabigazio-mota jakin batzuetarako ikuskapen-modalitate bereziak

Gurutzaldi-itsasontziak

3.2.1. Gurutzaldi-itsasontzi bateko kapitainak edo, bestela, itsas agenteak dagokion mugetako guardiako agenteei jakinaraziko die gurutzaldiaren ibilbidea eta programa, irteera baino 24 ordu lehenago, gutxienez, bai eta estatu kideetako lurraldeko dauden portuetara iritsi baino lehen ere.

3.2.2. Gurutzaldi-itsasontzi baten ibilbidean estatu kideen lurraldean dauden portuak bakarrik badaude, 4 eta 7. artikuluetan adierazitakoaren salbuespen gisa, ez da ikuskapenik egingo eta gurutzaldi-itsasontziak geldialdiak egin ahal izango ditu mugakotzat jota ez dauden portuetan.

Dena dela, itsasontzi horretako tripulazioaren eta bidaiarien ikuskapenak egin ahal izango dira, hala egitea arrazoitzen badu arriskuen balorazioak, barne-segurtasunaren eta legez kanpoko immigrazioaren ikuspegitik.

3.2.3. Gurutzaldi-itsasontzi baten ibilbideak estatu kideen lurraldean dauden portuak eta hirugarren herrialdeetako portuak hartzen baditu, 7. artikuluan esandakoa esanda ere, mugetako ikuskapenak egingo dira jarraian azaltzen den moduan:

a) gurutzaldi-itsasontzia hirugarren herrialde batean dagoen portu batetik baldin badator eta geldialdia lehenengoz estatu kide baten lurraldean dagoen portuan egiten badu, tripulazioaren eta bidaiarien ikuskapenak egingo dira 3.2.4 puntuak aipatzen dituen tripulazioaren eta bidaiarien zerrendetatik abiatuta

Itsasontzia uzten duten bidaiarien sarrera-ikuskapenak egingo dira 7. artikuluaaren arabera, kasu batean izan ezik: hala ez egitea arrazoitzen badu arriskuen balorazioak, barne-segurtasunaren eta legez kanpoko immigrazioaren

ikuspegitik;

b) gurutzaldi-itsasontzia hirugarren herrialde batean dagoen portu batetik baldin badator eta geldialdia berriz estatu kide baten lurraldean dagoen portuan egiten badu, tripulazioaren eta bidaiarien sarrera-ikuskapenak egingo dira 3.2.4 puntuak aipatzen dituen tripulazioaren eta bidaiarien zerrendetatik abiatuta, baldin eta zerrendetan aldaketarik badago gurutzaldi-itsasontziak estatu kide baten lurraldean dagoen aurreko portuan geldialdia egin duenetik

Itsasontzia uzten duten bidaiarien sarrera-ikuskapenak egingo dira 7. artikularen arabera, kasu batean izan ezik: hala ez egitea arrazoitzen badu arriskuen balorazioak, barne-segurtasunaren eta legez kanpoko immigrazioaren ikuspegitik;

b) gurutzaldi-itsasontzia hirugarren estatu kide batean dagoen portu batetik baldin badator eta geldialdia ezaugarri bereko portu batean egiten badu, itsasontzia uzten duten bidaiarien sarrera-ikuskapenak egingo dira 7. artikularen arabera, hala egitea arrazoitzen badu arriskuen balorazioak, barne-segurtasunaren eta legez kanpoko immigrazioaren ikuspegitik;

d) gurutzaldi-itsasontzi bat estatu kide baten lurretan dagoen portu batetik atera eta hirugarren herrialde batean dagoen batera abiatzen bada, tripulazioari eta bidaiariei irteera-ikuskapenak egingo zaizkie tripulazioaren eta bidaiarien zerrendetatik abiatuta.

Itsasontzira sartzen diren bidaiarien irteera-ikuskapenak egingo dira 7. artikularen arabera, hala egitea arrazoitzen badu arriskuen balorazioak, barne-segurtasunaren eta legez kanpoko immigrazioaren ikuspegitik;

e) gurutzaldi-itsasontzi bat estatu kide baten lurretan dagoen portu batetik atera eta ezaugarri bereko portu batera badao, ez da irteera-ikuskapenik egingo.

Dena dela, itsasontzi horretako tripulazioaren eta bidaiarien ikuskapenak egin ahal izango dira, hala egitea arrazoitzen badu arriskuen balorazioak, barne-segurtasunaren eta legez kanpoko immigrazioaren ikuspegitik.

3.2.4. Tripulazioaren eta bidaiarien zerrendetan honako hau jaso beharko da:

a) izen eta abizenak;

b) jaiotze-data;

c) nazionalitatea;

d) bidaia-agiriaren zenbakia eta mota eta, halakorik badago, bisatu zenbakia.

Gurutzaldi-itsasontziko kapitainak edo, bestela, itsas agenteak mugetako guardiako agenteei zerrendak bidaliko dizkie estatu kide bateko portura iritsi baino 24 ordu lehenago, eta portu horretarako bidaia 24 ordu baino gutxiagokoa baldin bada, aurreko portuan itsasontziratzea itxi eta berehala.

Zerrenda estatu kideetako lehenengo sarrera-portuan zigilatuko da, eta, ondoren, zerrenda aldatzen den bakoitzean.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Zerrenda kontuan hartuko da 3.2.3. puntuan aipatutako arriskuak ebaluatzean.

Aisialdiko nabigazioa

3.2.5. 4 eta 7. artikuluetan adierazitakoaren kaltetan gabe, estatu kide bateko portu batetik datozen edo bertara doazen aisialdiko ontzietan dauden pertsonak ez dute ikuskapenik pasako eta mugakotzat jota ez dauden portuetan sartu ahal izango dira.

Dena dela, pertsona horien ikuskapenak egingo dira edo aisialdiko ontziaren miaketa fisikoa, hala egitea arrazoitzen badu arriskuen balorazioak, legez kanpoko immigrazioaren ikuspegitik, eta, bereziki, eragindako estatu kideak inguruan hirugarren herrialde bateko itsasertzak badu.

3.2.6. 4 artikuluan aipatutakoaz gain, hirugarren herrialde batetik datorren aisialdiko ontziamugako igarobide bezala onartuta ez dagoen portu batean sartu ahal izango da Halakoetan, itsasontzian dauden pertsonak portuko agintariei jakinarazi beharko diete portuan sartzeko baimena eman diezaieten. Portuko agintaritzak mugako igarobidetzat onartutako portuarekin harremanetan jarriko dira itsasontziaren etorreraren berri emateko. Itsasontzian bidaiariak daudela adieraziko zaio portuko agintaritzari, eta, horretarako, itsasontzian dauden pertsonen zerrenda emango zaie. Zerrenda hori guardiako agentei eman beharko diete portura iritsi bezain laster mugetako Era berean, halaber hiru hirugarren herrialde batetik datorren itsasontziak muga-igarobidetzat onartuta ez dagoen beste portu batean gelditu beharko balu, portuko agintaritzak mugako igarobidetzat onartutako gertueneko portuarekin harremanetan jarriko dira, itsasontzia bertan porturatuta dagoela jakinarazteko.

3.2.7. Ikuskapen horiek direla eta, itsasontziaren ezaugarri tekniko guztiak biltzen dituen agiri bat aurkeztu beharko da, baita itsasontzian dauden pertsonen izen eta abizenak ere. Agiri horren kopia bat entregatuko zaie portuko agintariei sarreran eta irteeran, eta itsasontziko agiriaren beste kopia bat itsasontzian bertan gordeko da itsasontzia Estatu kideetako baten uretan dagoen bitartean.

Baxurako arrantza

3.2.8. 4 eta 7. artikuluetan adierazitakoaren kaltetan gabe, tripulazioari ez zaio ikuskapen sistematikorik egingo arrantza-ontzia egunero edo 36 orduko epean itsasontzia matrikulatuta dagoen portura edo estatu kideen lurraldeko portu batera itzultzen bada, hirugarren herrialde bateko porturen batean geldialdirik egin gabe. Dena dela, egin beharreko ikuskapenen maiztasuna zehazteko, legez kanpoko immigrazioaren ikuspegitik egindako balorazioa kontuan hartuko da; eta aintzat hartuko da, batez ere, eragindako estatu kide baten inguruan hirugarren herrialde bateko itsasertzak dagoen. Arriskuak nolakoak, ikuskapen pertsonalak eta itsasontziaren miaketa fisikoa egingo dira.

3.2.9. Estatu kideetako baten lurretan dagoen portu batean matrikulatuta ez dagoen baxurako arrantzan aritzen den itsasontzi bateko tripulazioari itsasgizonei buruzko xedapenek ezarritakoari jarraiki egingo zaizkie ikuskapenak.

Itsasontziko kapitainak, horrelakorik badago, tripulazioan gertatzen den edozein aldaketa jakinaraziko die eskumena duten agintariei, eta gauza bera egingo du bidaiariak badaude.

Transbordadoreen lotuneak

3.2.10. Ikuskapena pasa beharko dute hirugarren herrialdeetako transbordadoreen lotuneetan dauden pertsonak Honako arau hauek aplikatuko dira:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- a) aukerarik badago, estatu kideek aparteko errenkadak jarriko dituzte 9. artikulua ezarritakoari jarraiki,
- b) oinezkoak aparte ikuskatuko dira;
- c) ibilgailuetan dauden bidaiarien ikuskapenak ibilgailuetan egingo dira;
- d) autobusetan bidaiatzen duten bidaiariak oinezkotzat joko dira Pertsona horiek autobusetik atera beharko dute, ikuskapena egin ahal izateko
- e) kamioi-gidariei eta, baldin badaude, horien laguntzaileei ibilgailuan bertan egingo zaie ikuskapena. Printzipioz, horiek ez dira gainerako bidaiariekin batera ikuskatuko.
- f) ikuskapenen erritmoa azkarra izan dadin, postu-kopuru egokia aurreikusi beharko da
- g) legez kanpoko etorkinak hautemateko, ausazko miaketak egingo dira bidaiariak erabilitako garraiobideetan Zama eta garraiatzen ari diren bestelako ondasunak ere ikuskatuko dira;
- h) transbordadoreetako tripulazioari merkantzia-ontzien tripulazioari ematen zaion trataera bera emango zaio.

4. Barruko uretako nabigazioa

4.1. Honi esaten zaio “barruko uretan nabigatzea kanpoko muga bat zeharkatzen dela”: mota guztietako itsasontzi, ontzi eta objektu flotatzaileak erabiltzea ibai, kanal eta aintziretan, helburu profesionaletarako.

4.2. Jarduera profesionaletarako erabiltzen diren itsasontzietan, tripulazioko kide eta kapitainaren antzekotzat joko dira bertan lan egin eta rolean agertzen diren pertsonak, baita tripulazioko kideen senideak ere, itsasontzian bizi badira.

4.3. 3.1 eta 3.2 puntuetako xedapenak *mutatis mutandis* aplikatuko zaizkie kapitulu honek aipatzen duen nabigaziomotako ikuskapenei.

VII ERANSKINA

Zenbait pertsona-kategorientzako arau espezifikoak

1. Estatuburuak

5. artikuluan eta 7tik 13ra arteko artikuluetan ezarritakoa dena dela ere, mugetako guardiako agenteek erabaki dezakete estatuburuei eta haien ordezkarietako kideei aduanako ikuskapenik ez egitea, baldin eta iritsi edo aterako direla bide diplomatikotik ofizialki iragarri baldin badiote mugetako guardiako agenteei.

2. Aireontzietako pilotuak eta tripulazioko beste kide batzuk

2.1. 5. artikuluan adierazitakoa dena dela ere, pilotu-lizentziaren edo tripulazioko kide txartelaren jabe direnek (*Crew*

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Member Certificate), 1944ko abenduaren 7ko abiazio zibileko Hitzarmeneko 9. eranskinean dauden horietako bat bada, beren funtzioak burutzeko eta agiri horiek oinarri hartuta hau egin ahal izango dute:

- a) Estatu kideko lurretan dagoen eskalako edo helmugako aireportuan hegazkinetik jaitsi eta igo
- b) Estatu kideko lurretan dagoen eskalako edo helmugako aireportuaren udalerrira joan;
- c) edozein garraibide erabiliz, estatu kideko lurretan dagoen aireportu batera joan, handik aterako den hegazkin bat hartzeko.

Beste kasu guztietan, 5. artikuluko 1. atalean aipatzen diren baldintzak bete beharko dira.

2.2. 6. artikulutik 13ra bitarteko artikuluetako xedapenak aplikatuko dira hegazkinetako tripulazioaren ikuskapenak egiteko. Aireontziko tripulazioaren ikuskapenari, ahal den neurrian, lehentasuna emango zaio. Zehazki, ikuskapena bidaiariena baino lehenago egingo da, edo horretarako jarritako kontrol postuetan egingo. 7. artikuluan esandakoaren kaltetan gabe, kontroleko langileek lana dela-eta ezagutzen duten tripulazioari ausazko ikuskapenak bakarrik egiteko aukera dago.

3. Itsasgizonak

3.1. 4 eta 7. artikuluetan adierazitakoaren kaltetan gabe, estatu kideek itsasgizonei baimena eman diezaiekete muga-igarobide batean aurkeztu gabe itsasontzitik jaisteko eta, baimen-egunetan dauden bitartean, portutik edo inguruko herrietatik ibiltzeko. Horretarako, itsasgizonentzako nortasun-agiria izan beharko dute, 2003ko ekainaren 19ko Genevako konbentzioaren (185 zk.) eta 1965eko apirilaren 9ko Londresko Hitzarmenaren, eta dagokion barne-zuzenbidearen arabera izapidetuta, eta interesdunak dagokion itsasontziaren rolean (ikuskatua izango da aurretik) agertzen behar du.

Dena dela, hala egitea arrazoitzen badu arriskuen balorazioak, barne-segurtasunaren eta legez kanpoko immigrazioaren ikuspegitik, mugetako guardiako agenteek, 7. artikulua araberan, itsasgizonak ikuskapena pasatzera behartuko dituzte itsasontzitik jaitsi aurretik.

Itsasgizonen bati jaisteko baimena ukatu ahal izango zaio ordena publikorako, barruko segurtasunerako edo osasun publikorako arriskutsua bada.

3.2. Portuaren inguruko herrietatik kanpo ostatu hartu nahi duten itsasgizonek estatu kidean sartzeko baldintzak bete beharko dituzte, 5. artikuluko 1. atalak ezartzen duen bezala.

4. Pasaporte diplomatikoen jabeak, ofizialak edo zerbitzuetaoak izan; eta nazioarteko erakundeetako kideak

4.1. Dituzten pribilegioak eta immunitate-erregimena dela-eta, bidaiarien aurrean lehentasuna izango dute muga-igarobideetan hirugarren herrialde batek edo estatu kideek aitortutako Gobernuak izapidetutako pasaporte diplomatikoen jabeak, ofizial edo zerbitzuetaoak izan, baita 4.4 puntuan adierazitako nazioarteko erakundeek izapidetutako agiriaren jabeak ere: Horretarako, baldintza hauek bete beharko dituzte: bidaia beren eginkizunekin lotuta egotea, eta, bisatua beharrezkoa bada, bisatua edukitzea.

5. artikuluko, 1. idatz-zatiko c) letran ezarritakoa dena dela ere, aipatutako agirien jabeek ez dute justifikatu beharko bizirauteko nahikoa bitarteko dutenik.

4.2. Pertsona batek kanpoko muga pasatzean pribilegioak, immunitatea eta salbuespenak eskatzen baditu, mugetako guardiako agenteak pertsona horri eska diezaioke bere izaera agirien bidez froga dezala, eta, bereziki, aurkez diezazkiola, hori egiaztatzen duen herrialdeak izapidetutako agiria edo pasaporte diplomatikoa edo besteren bat. Zalantzarik badu, mugetako guardiako agenteak informazioa bil dezake, larrialdiko kasuetan, Kanpo Gaietarako Ministerioan.

4.3. Ordezkaritza diplomatikoetan eta kontsulatuko bulegoetan kreditatutako kideak eta haien senideak estatu kide baten lurretan sartu ahal izango dira aurrez aurkeztuz 19. artikuluko 2 atalean adierazitako txartela eta muga zeharkatzeko baimena ematen duen agiria. Beste alde batetik, 13. artikuluan adierazitakoaren salbuespen gisa, mugetako guardiako agenteek ezingo diote estatu kiden lurraldera sarrera ukatu pasaporte diplomatikoa, ofiziala edo zerbitzukoa, dutenei aurrez eskumena duten agintari nazionalekin kontsultatu gabe, nahiz eta interesduna SISean ez onargarri gisa inskribatuta egon.

4.4. Hauek dira nazioarteko erakundeek 4.1 puntuan aipatzen den helburuarekin izapidetutako agiriak:

— Nazio Batuek erakundeko langileei eta bere menpeko erakundeei emandako igarobaimena, 1947ko azaroaren 21ean New Yorken Nazio Batuen Batzar Nagusietan onartutako espezializatutako erakundeen pribilegioei eta immunitateari buruzko Hitzarmenari jarraiki

— Europar Batasunaren igarobaimena

— Energia Atomikoaren Europako Erkidegoaren (Euratom) igarobaimena

— Europako Kontseiluko Idazkari Orokorrek emandako legitimazio-ziurtagiria

— Beren indarren Estatutuari buruz Ipar Atlantikoko Itunaren parte diren estatuen arteko hitzarmenaren III. artikuluko 2. atalaren arabera izapidetutako agiriak (nortasun-agiri militarra, eta misio-ordena, ibilbide-orria, zerbitzu indibidualeko edo kolektiboko ordena) eta Bake Erakundearen baitan izapidetutako agirial.

5. Mugaz haraindiko langileak

5.1. Mugaz haraindiko langileen ikuskapen-modalitateak muga-kontrolari buruzko xedapen orokorrek arautuko dituzte, eta, bereziki, 7 eta 13. artikuluek.

5.2. 7. artikuluan adierazitakoa dena dela ere, muga-igarobide bera askotan zeharkatzen dutelako mugetako guardiako agenteek ongi ezagutzen dituzten mugaz haraindiko langileei, baldin eta hasierako ikuskapen baten ondoren SISean edo datu-sistema nazional batean inskribatu ez badituzte, ausazko ikuskapenak bakarrik egingo zaizkie jakiteko muga zeharkatzeko agiri balioduna dutela eta sartzeko baldintzak betetzen dituztela. Noizean behin, eta aurrez jakinarazi gabe eta tarte irregularrekin, ikuskapen zehatzak egingo zaizkie.

5.3. 5.2 puntuan azaltzen diren xedapenak beren lantokietara joateko muga maiz zeharkatu ohi duten beste pertsona batzuei ere ezarri ahal izango zaizkie.

6. Adin txikikoak

6.1. Mugetako guardiek arreta berezia jarriko dute adin txikikoetan, helduekin joan edo ez. Kanpoko muga zeharkatzen duten adin txikikoek helduek pasatzen dituzten sarrera- eta irteera-kontrolak pasa beharko dituzte, erregelamendu honetan adierazitakoari jarraiki.

6.2. Helduekin doazen adin txikikoak badira, mugetako guardiako agenteak helduaren guraso-ahala egiaztatu beharko du, eta, batez ere, heldu batekin bakarrik badao eta arrazoiak baldin badaude pentsatzeko legez adin txikikoaren guraso-ahala duten pertsonen zaintza legez kontra kendu zaiela. Azken kasu horretan, mugetako guardiako agenteak ikerketa zehatzagoa egin beharko du, emandako informazioan koherentzia ezik edo kontraesanik dagoen hautemateko.

6.3. Bakarrik bidaiatzen duen adin txikikoak bada, mugetako guardiako agenteak ziurtatu beharko du, agiriak eta bidai-egiaztagiria zehazki ikertuz, adin txikikoak ez duela lurraldea uzten guraso-ahala duten pertsonen gogoz kontra.

VIII. ERANSKINA

Estatua

Estatuaren logotipoa (zerbitzu arduraduna)

EGONALDI LABURRAREN BALDINTZA BETETZEN DELA EGIAZTATZEKO ZIURTAGIRIAREN ONARPENA, BIDAIA-AGIRIAK SARRERA-ZIGILURIK EZ DUENEAN.

Eguna: _____ Ordua: _____ Muga: _____

Behean sinatzen duen agentearen (_____) aurrean jaun/andre hau agertu da:

Abizena(k): _____ Izena: _____

Jaioteguna: _____ Herria: _____ Sexua: _____

Nazionalitatea: _____ Bizilekua: _____

Identifikazio-agiria: _____ Zk.: _____

Non emana: _____ Eguna: _____

Bisatu-zenbaki hau duela: _____ Honek emana (beharrezkoa bada): _____

Baliorduna _____ tik _____ ra. Egonaldiaren arrazoiak: _____

Ikusita estatu kidean izango duen egonaldiaren iraupena egiaztatzeko aurkeztutako agiriak, joko dugu interesduna _____ estatu kideko lurraldean _____ an sartu zela _____ etan, muga-igarobide honetatik:

Kontrolaren ardura duen agentearen harremanetarako datuak:

Telefona: _____

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Faxa: _____

Helbide elektronikoa: _____

Interesdunari agiri honen kopia eman zaio

Interesdunaren sinadura

Kontrolaren ardura duen
agentearen sinadura
+ zigilua

Logotiporik ez da behar Norvegia eta Islandiarako